

ENCUENTRO EN LA CUARTA FASE

1998ko urriak 16-17 • Portugaleteko Nautika Eskola • Bizkaia

Sindikalismoak bide luzea jorratu du mende eta erdiko esperientziarekin, eta luzea ere da egun konbergitzen duten pertsonetako askok 60. hamarkadatik Euskal sindikalismoaren aniztasunaren barruan berezko proiektu sindikala suspertzeko burutu duten bidea.

Egia da ez dela lehenengo aldia bat egiten dutela proiektu sindikal batean. Elkarrekin aritu ziren enpresa-taldeak eta lantegietako langile batzordeak sortzen, mendian eta elizetan burutzen ziren asanbladatan zein 1974ko abenduaren 11ko greba orokorra prestatzen.

Elkarrekin egin zuten Leioako biltzarran amaitu eta batere erraza izan ez zen Euskadiko CCOOen bategiterako bidea. Hau da, egun proiektu sindikal hau suspertzen duten pertsona batzuk aspalditik ezagutzen dute elkar, elkarrekin aritu ziren frankismoren menpe zegoen euskal langile-mugimenduaren berrosaketan askatasun sindikala lortu arte.

Baina ez zen hor bukatu elkarrekin buruturiko bidea, eta beste testuinguru batean, sindikatuen legalizazioa lortu ondoren, hiru urteetako iraupena izan zuen esperientzi amankomunal bati ekin zioten, hots, Korronte Unitarioaren aritzeari alegia. Esperientzi hau 1979ko udazkenean amaitu zen Korronte Unitarioko kide batzuren kaleratzearekin, besteak barruan geratu zirelarik.

Hamazortzi urte iraun du hirugarren fase honek, organikoki banandurik izan direla. Urte hauetan, haserraldiak eta bategite bat baino gehiago izan dira. Eta laugarren faseari ekin diote, borrokarako grinari eutsi dion jendea erakunde batean bat eginik. Euskal Herriko historiaren erreferentzi puntuak izan diren borroketan parte hartu duten pertsonak. Ezbeharretara ohituriko jendea. Enpresa-zuzendaritzarekin lankidetzari uko egin dion jendea, iraitzeen aurka garbi eta argiz arituz, neurri diskriminatzaileen kontra eginaz...

Desberdinak izan diren sindikatu desberdinetan egoteak ez du arazorik suposatzen mobilizazio bateratuak suspertzeko, ezta ere bizitza sozialeko beste esparruetan elkarrekin aritzeko (eskludizioaren aurka, presoen aldeko egitatean edo intsumisioaren aldeko mobilizazioak apoiatzerakoan).

Esandakoak eta ahaztu zaizkigunak, ibilbide berri honen sinesgarritasuna adierazten dute; zeinak, ezinbestez, ideia desberdin eta bizituriko esperientzi desberdinen islada izango den aniztasun osagarri sendoa izango duen; hala nola eraketa-indartzea, zeinaren bidez hobekiago egin aurre bizi beharko ditugun erronkei eta honela afiliatuei hobekiago erantzun.




EZKER
SINDIKALA

1. GEHITZEAK ETA GUTXITZEAK MUGIMENDU SINDIKALEAN	7
S indikalismo aktiboaren bide egokia	9
B arne harremanak mugimendu sindikalean	14
M ugimendu sindikalaren aginpide morala	18
L an-araubidea enpresetan	21
E zker sindikala	25
2. EKONOMIA ETA PERTSONAK	29
H azkunde ekonomikoa eta gizartea	31
N eoliberalismoa	33
G lobalizazioa	36
B atasun europarra	38
K onponbideak eta alternatibak	40
H ego herrialdeekiko solidarioak	44
3. BALOREAK BATZEN DITUEN KONBERGENTZIA	47
I bilbide luzea	49
E struktura ordezkatzaille eta eragilea	51
4. ARAZO NAZIONALA	53
D imentsio orekatua	55
E uskara. Autodeterminazioa	57
5. HAINBAT PROPOSAMEN MUGIMENDU SINDIKALARENTZAT	59

1.

Gehitzeak
eta gutxitzeak
mugimendu
sindikalean



Sindikalismo aktibo baten bide egokia



Ziurenik, aurrera eramaten ari garen bezalako konbergentzi baterako, seinale ona da bere sortze eta garapena, gure herriko sindikalismoarentzat udaberri mugitu baten esparruan eman izana. Konbergentzi hau, protagonizatzen dituzten kolektibo sindikalen elementu sustatzaile gisa, harrera ona baino ez dezake aurkitu seriotasunaz eta zorroztasunaz eta behar den borondatez ere, kaudimen moral zein eskubideen eraitze-ondarea sortu nahi duen sindikalismoan. Sindikalismo honek, mendea amaitzear eta oso aldakorra den mundu honetan, gizarteari behar duen balore gehigarria eman nahi dio.

Apirileko 23ko ordubeteko lan-etenaldiaz eta Maiatzaren 1eko manifestaldiaz, beste ekimenen artean, mobilizazio sindikalak, bere indarrak neurtu zituen. Eta saihestezin denez, arlo ahul batzuk, batez ere enpresetan, adierazi zituen, zein aspalditik datozen inertzi batzuren eragin gerarazlea. Inertzi hauek ez dira batere errazak gainditzen. Hauen artean aipatu komunikabideetan norberaren irudia handitzeko tendentzia, ekarturiko meritoak gradu batean edo bestean desenfokaturik. Baina balantzearen hartzekoan, eta oraingo honetan zalantzarik gabe, buruturiko esfortzuari saldo garbi positiboa uzten dioten partida batzuk agertzen dira.

Kanpainaldiaren funtsezko edukinek (35 orduetako lanaldia astean eta oinarritzko diru-sarrera) bat egin dute euskal gizartearen alderdi handi batek dituen kezka eta sentsibilitatearekin. Kanpainaldi hau, enplegua duen jendeak, urritasuna, langabezia edo pobrezia pairatzen duen pertsonetikiko korronte solidario baten espresio bidea da. Bistan da errebindikazio hauek, nagusia den eta pentsamendu uniformearen foro zein tribuna guztietatik predikatzen den guztiaren aurka dagoela. Baina kanpainaldiaren diskurtsoak eta praktikak frogatu zuten errebindikaziok gaurkotasun handia dutela, eta berauek ukatzea aginte-ihardutea dakarrela eta ez razionaltasun ekonomiko ukaezin baten defentsa.

Ekimenaren onarpena

Antzeko garrantzia eman diezaiokegu beste egitate azpimagarri bati: sindikalismo nazionalak egitate sozio-ekonomikoa zabaltzeko ekimenaren onarpenari, unitarioki mobilizatuz. Gobernuaren lege-asmoen baitan edo maila estataleko sindikalismoan nagusi diren portaerekin bat izango ez diren dinamikak sortzeko

35 orduetako lanaldia astean eta oinarrizko diru-sarreraren exigentziak bat egiten dute euskal gizartearen alderdi handi batekin

gai izango den sindikalismo aktibo baten eszenategi batean, hots, euskal esparru batean pentsatzeko aukera ematen digun perspektibarekin. Hau dela eta, esan daiteke, kanpainaldia, herrialde europear batzutan bizi den nahiari Euskal Herriak egin dion ekarpena izan dela. Nahi honek, langabezia diren pertsonen bultzaturiko mobilizazio eta presio sindikalari esker, bere lehen lege-irudikapena aurkitu du Frantziako Asanbladak onarturiko 35 orduetako legean, nahiz eta berau partziala eta osagabea izan den. Baliteke beste parlamentu batzuk bide horretatik jotzea, baina ugazaberi europarrek adierazi duten oposizio itxia kontutan hartuz gero, irudikapena ez da emango kale-mobilizazioez exigitzen jarraitzen ez bada eta berau ez bada indar sindikalen lehentasun errebindikatzailen artean aurkitzen.

Hauek al dira bizi-perspektiba zein ideia-kuadro baten lehen trazuak, zeinak gehiago zehazten diren neurrian, ideia neoliberaldun sistemari bere globaltasun berberatik erantzuteko gai izango diren? Seguraski, galdera hau erretorikoa da, eta haritik gehiegi tira egin nahi da jakin gabe nahikoa haril izango den. Hala ere, ez dugu bere balorea mesprezatu behar aipaturiko norabidetik aritzeko. Bere oinarri morala, genero, muga eta pertsonen koloreen gainetik beste jokaera solidarioak suspertzen dituen sustrai berberatik sortzen da; jarrera horiek, munduko Estatu askotan, batez ere lurralde pobreenetan, ematen den ume-esplotazio eta lanarekin bukatzeko baldintzak sortzera garamatzate herrialde bakoitzean eta gurean ere; edo oraindik aitortzeke dauden eskubide sindikal eta demokratikoen lorpenean ere laguntzera.

Sindikalismoaren bide luzea

Sindikalismoak bide luzea eman du mundu osoan langileek bizi zituzten baldintza lotsagarrietaz defendatzeko lehen eta hasberri taldeak osatu zirenetik. Mende eta Erdiko ibilbide honetan, errealtate ekonomiko eta produktiboan zein lan-erregulazioetan emandako eraldaketei loturiko krisialdiek, amildegia-eren ertzan jarri dute mugimendua behin baino gehiagotan. Baina mugimenduak aurrera egin du aldaketei egokitzuz, nahaste-borraste eta atzerakadaldi luzeen ostean. Egokiera horren kalitateaz zein beronetaz dugun iritzia alde batera utziko dugu, orientazio guztiak present izan baitira. Ematen du, egun, horrelako egoera bizi dugula. Batzuren arabera, sindikalismoak, bere historiaren zehar izan duen krisirik larrienetako bat bizi du, batez ere eremu garatuenetan.

Sindikalismoa mugitu eta aritzen den esparruaren faktore objetibo eta ideologikoen zerrendatzea, beronek dituen arazoetara hurbiltzeko ohiko bidea izan da, zein segurtasunik gabe eta koropilotsu azaltzen den etorkizunari perspektiba positiboagoak aurkitzeko sistema. Aipaturiko zerrendatzea eta suertaturiko eraginak juzgatzeko ikuspuntuak hemen adierazteak ez luke interesik izango, arlo honetan ematen den adostasuna zabala baita eta nahikoa adierazita dago. Ordea, gustatuko litzaiguke sindikalismo berritu eta bere historiaren jabe izan nahi duen nahiaren alderdiari buruzko hausnarketaren bat egitea, alderdi *subjetibo* buruzko hausnarketa.

Sindikalismoaren eraldagarritasuna

Sindikalismoak ba al du eraldagarritasunik? Ez da gaur goizeko galdera, eta garai desberdinetan zein protagonista desberdinek emandako erantzunak ere ez dira aho batekoak izan. Baina galdera berregin behar da, eragina baitu. Eragina, sindikalismoak eta berau osatzen duten erakundeetako zein taldeetako bakoitzak bere burua aitortzean eta beronen egitatea bideratzean. Eman diren eraldaketekin batera, autorrekonozimendu honek, erasoaldi handienetako bat jasan du. Erosioak korronte guztietan egin du eragin, eta erosioa ez da makala izan adierazitako galderari baiezkoa eman ohi diogunongan.

Korronte batzuk, sindikalismoari, gizarte errealitatearen eraldatze-hulburuak eman dizkiote; beste batzuk, jakina denez, ez. Laburbildurik esan, sindikalismo britaniarra edo EEBBetan nagusia den sindikalismoa, ez dela esparru honetan kokatzen. Ezta ere sindikalismo kristauaz ezagutu zena. Eta zalantzak, sindikalismo sozialista edo hobekiago esanda, sindikalismo *libreari* buruz dagokionean. Sindikalismo *profesionala* edo *independientea*, esparrutik at geratzen da inongo zalantzarik gabe. Korronte hauek izan duten gizarte desberdin eta desideragarri baten kontzeptziora bideraturiko osagarri ideologikoa oso ahula izan da; honek, nortasun ideologiko sendoago, gizartearen eraldaketa sakonerako nahia adibidez, bere gain hartzen zutenengandik bereiztuko luke. Maila horretan desberdintasunik ezartzeko aukera ematen zuena, praktikan ez zen hain arbi geratzen; esan behar da bigarren korronteetan lehenengoetan baino jarrera zein praktika errebindikatzaila garbiago zela. Pena merezi du aipatzea korronte batek zein besteak, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasunari buruzko exigentziak eta arazoak alde batera uzten zituztela.

Garai berrietan

Garai berrietara mugatuz, korronte-zatiketa honek irudikapen berezia izan zuen 70 eta 80ko urteetako Euskadin. Urte horietan sindikatuen arteko gatazka oso bizia izan zen produkzio-aparatuaren zein berau arautzen zituzten erregulazioen desmantelaketa-prozesu nahasian. Egun, ordea, garai hori, historiaren parte bat balitz ikusten dugu, eta ez egungoa. Geroari egiten diogu so, errealitate sozialaren indar eraldatzaitzat hartuko duen *identitatea* berregitea utziko lizkiguketeen oinarrietaz kezkatzen gara. Eta honek bultzatzen gaitu. Mundua aldatu egin da, eta ez da erraza identifikatzen zerk dirauen eta zer aldatu behar den urtetan jarraitu ditugun uste haietatik, ezta ere zein izango den norabide berrietan jarduteko prest izango den sindikalismoaren giza osaketa zein soziala.

Gizarte desberdin, justuago eta solidarioa sortzera zuzenduriko sindikalismoaren iraunkortasun eragingarria frogatzeke dago, etorkizuneko egitate orok dauden moduan. Baina *borondatearen* espa-

Gustatuko
litzaiguke
sindikalismo
berritu baterako
alderdi
subjibo
buruzko
hausnarketaren
bat egitea

Sindikalismoaren etorkizuna, honek uneoro hartzen duen orientazioaren baitan dago

rruan mugitzen ari garenez, esan nahi dugu etorkizun horrek uneoroko orientazioarekin eta iharduerarekin lotura estua duela. Honekin baieztatzen dugu errealitate laborale, sozial eta ekonomikoaren hisiz, sindikalismoak bere bide propioa jorra dezakela, moldaera eta gatazka, irizpide zein interes-independentzia eta arerioek diseinaturiko mundua onartzeko tendentziaren arteko tentsioei irtenbidea aurkitzen badie.

Ikuspegi batzuren arabera, gakoa, sindikalismo militante baten baieztapenean datza; beste batzuren ustez, aldiz, indarrean dagoen sistemaren aurkako helburu batzuren aldarrikapenean. Betetzen zaila bada ere, dena baliagarria da eta beharrezkoa.

Guk gure aldetik zera gehitu nahiko genuke, Jason eta argonautei bezala, guri ere, agintariak frogak bidaltzen dizkigutela, gaintitu behar ditugunak aurrera egin nahi badugu. Froga horiek, egun, aparteko orduen ezinbesteko erroten kentzeari buruzkoak dira; Nafarroako VW edo Gasteizko Mercedes Benz bezalako enpresa-hitzarmenetako txantai eta presioei buruzkoak; emakumezkoak, gizonaen baldintza berberetan kontratatzeke ugazaben ezezkoari buruzkoak; B hitzarmen deiturikoei buruzkoak, non plantillaren alderdi batentzat soldata zein lan-baldintza gaitzagoak jasotzen diren, zeinetan, emakumezkoen kaltean, *balore berdinetako* lanentzat, soldata desberdinak ordaintzen diren. Mundua zabala da eta aurre egin behar diegun erroten helgaitzak direla dirudite. Bertigo sortzailearen sentsazio honen parean, ekologismoak erabiltzen duen lema parafraseatuz, agian esan genezake sindikalismoak *tokian tokiz pentsatu eta tokian tokiz ekin, eta globalean pentsatu eta globalean ekin* esan beharko lukeela.

Dimentsio zehatza

Dena den, ezin da inoiz ahaztu kanpainaldian plazaratutako errebindikazioen dimentsio zehatza. Eta kanpainaldiak jarraipen ona izan dezan, arrazonagarria deritzogu harira datozen gogoeta batzuk proposatzeari. Besteak beste denborari buruzkoak. Denbora da kontutan izan behar dugun faktorea; enpresetan –sindikatuaren adostasunaz–, ordutegi eta lan-egutegiaren malgutasuna nagusitzen ari den dinamika da; malgutasun honek deusezten du lanaldiaren murrizketak enplegua sortzeko duen ahalmena. Honez gain, eta dinamika kontrajarri hori gabe ere, frogatzeke dago 35 orduetako lanaldiak langabeziaren murrizketan izan dezakeen eragina. Ekidezina da uzkurutasunik sentitzea sortuko liratekeen milaka enpleguen zenbatekotze doi eta zehatzean oinarritzen den exigentziaren argudiaketa entzuterakoan. Egia da ekonomian eta enpleguan faktore askok eragiten dituztela, aldagai bati bakarrik eragin onuragarri eta erabatekoak ezin zaizkiola egotzi. Batez ere sentsibilizazio sozialarako eta enplegurik ez dutenekiko mobilizazio zabala eta solidarioa sortzeko tresna gisa bere erabilgarritasuna azpimarratzeko beharrezko betekizun ez denean.

Lanaldiaren murrizketarekin batera, enpleguaren banaketarako formula zabala- goei ekin behar zaie. Esan dugun bezala, lanaldiaren murrizketa ordutegiaren

malgutasunarekiko aztertu behar da; eta hemen, lehen neurri bezala, aparteko orduak mugatzeko helburuaz. Aldi berean, enpleguaren banaketan eta lan-banaketan oinarrituriko bizi-kalitate hobeko batera zuzenduriko kontratu-era berriak proposatu beharko liriateke. Lan-banaketaren barruan etxe-lana aurkitzen da, bere zentzu zabalean. Mahai gainean diren proposamenak aztertu eta berri batzuk aurkitzen saiatu beharko ginateke.

Denbora-zatirako lanaren ikusmoldeak garrantzi handiko eraldaketa exigitzen du –egungo errealitatek hasiz, borondatezko lan-banaketa eta partehartzeko bidea bihurturiko baldintzetara–; zeren eta egun arte, kalokako enplegurako bidea izan den. Era berean, denbora-zatirako lana aukera bakarra da pertsona askorentzat, batez ere gazteentzat, ordaindutako lan-ihardueran sartu ahal izateko. Denbora-zatirako lanak ere, enplegu bat izan nahi duten emakumezko askoren laneratzeko era maskaratzen du, edo talde honi, denbora osorako lanari uko egitea errazten dio, ordu gutxiko lanaldiaz aldatuz, etxeko diru-sarreren osagarri gisa. Esperientziaren arabera, ez da erraza gatazka hau gainditzea, pertsona berean egoera ekidezin baten aurreko eta atzeko aldeak biltzen baitira; baina gutxienik, eskakizun sindikalen artean denbora-zatirako lan-arautzearen exigentzia mantendu behar da, denbora osokoa-ekin baliokidetuz, bai eskubideetan, bai egitatetan.

Lanaldiaren
murrizketareki
n batera,
enplegu-
banaketarako
formula
zabalagoei
ekin behar
zaie

Barne harremanak mugimendu sindikalean



Aritmetikaren edozein esanahi erabilgarrian, gehitzea, garrantzitsua da, eta gutxitzea, ez da horrenbesterako. Euskal mugimendu sindikalari aplikatuz, azken garaia, indarrak eta aliantzak, adiskidetasunak eta distantziak aldatu dituzten gehitze eta gutxitze garaia izan da, egungo egoera sindikalean diren sindikatuetakako bakoitzak aresti hurbilean betetzen zuen tokia zehazten jakitea zaila egiten dela. Guzti honek emaitza garbia du: ELA, LAB, STEE-EILAStik hurbil, eta CCOO zein UGTtik urruti gaudela.

Paradoxikoa bada, azken sindikatu hauentzat, CCOO eta UGTrentzat alegia, 1994ko urtarrilaren 27ko greba orokorra, bilakera baten goi-muturra izan da; zeina, egun, UGTren zuzendaritza estatalak berak, barne-txosten batean, CCOOn bilakaera karakterizatzen zuen *segizio-sindikalismo* horren praktikaz gorenera iritsi den. Bilakaera horretan ezin da elementu aringarriak aurkitu, eta are gutxiago, ezinbestez oso kritiko den iritzi bat ñabartzen utziko duen elementu positiborik. Azken urteotan, arerioen proposamenekin bat egitea bezalako indar eskasako jarrera negoziatzaileaz aritu dira CCOO eta UGT Gobernuarekin edo CEOErekin sinaturiko akordio-errituala eszeneratzen, Pentsioei buruzko Ituna edo Lan-erreforman bezala eginiko ukazioa nabarmenak eraginaz.

Ibilbide zentralista

Portaera hauekiko ordain logikoa ibilbide zentralista da. Ibilbide honek, euren pribilegio itxuragabearen egoera alda lezakeen lan-esparruko edozein transferentzien aurkari setatsuenak izatera eraman ditu. Sindikatu biek, Euskadin, lan-educineei zein sozio-ekonomikoei dagokienez, zaharkituriko Estatutu eta Amejoramendua defendatzen dituzte. Egitez, lan-esparruari dagokionez, ematen du, eskumen estatal osoan aurkitu nahi dutela une askotan aurre egin behar dioten ordezkariak behar horiek bermatzeko gai ez den babesa; ordezkariak behar horiek, lan-ordezkariarekiko zein instituzionalarekiko kontrola korkorazten die, eta ezin ditugu ahaztu diru-laguntzak eta honetatik eratortzen diren fondoak administratzea. Ezta uxatu ezaugarri hauetako gatazka batek nazionalismo espainiarra euskaldunarekin aurrez aurreko gatazka giro batean har dezakeen eta izatez hartzen duen traza ideologikoa.

Egitate burutua den bilakaera negatibo horrek, CCOOn ari zen Ezker Sindikalararen 20 urteetako esperientziari amaiera eman dio. Erakunde honetan konbergitzen direnetako parte den kolektibo honentzat, CCOOn jokabide nagusiak

burutzen zuen zesio berri bakoitzarekin lan horren interesa eta justifikazioa unez une ahulduz joan ziren; era berean, CCOOtik at mundu sindikalean ematen ari ziren aldaketeekeiko erakargarritasuna handituz zihoakien. Beraz, esan daiteke erabakia bikoitza izan zela; alde batetik, ezker sindikalaren ideien mundutik urrutiratu zen erakundea uztea, eta bestaldetik, ideia horiek ordezkatuago zeuden esparruan bete-betean sartzea.

ELAren bilakaera

Eta bizitzak ez dela ez programei ez lege-dekretuei lotzen frogatu nahiko baliagu, aurrekoa ematen ari zen bitartean, ELAn gertaera berezia ematen ari zen. Hogei urteetako historia sindikalaz definitutako matematiketan hezituriko buru kartesiarrentzat asimilatzen zaila zena. Pixkanaka-pixkanaka, ELAren bilakaerak sindikatu hau bereizi du guk beraiekin izandako esperientziaz ezarritako lekutik. Egun, aitortu behar dugu bere proposamenak zein ikuspuntuak interesa eta arreta merezi dizkigutela. Ikusi dugu indarrean diren postulatu ekonomikoekiko diskurtso kritikoa osatuz joan dela; nola urrundu den nagusitasun instituzionaleko sindikalismotik; eta nahi nazionaleri dagokienez, nola hasi den parte hartzen esparru sozio-politikoan lorpen handiko ekimenen bidez, bere lan-programetan agertzen ez ziren gai batzuk bereganatuz –eskludizio soziala kasu–.

Egia da denborak esango digula ea ELA bezalako erakunde baten tizat emaniko bira-erradioa zabaltasun handikoa den, eta ea norabide berri hau egonkorra eta sustraituta dagoen. Oraindik ere, ELAk, enpresa askotan, eskaintzen duen itxura bere ihardunbidean eskaini ohi duena da, buruzagi mailan eman den bilakaeraren arrastorik agertzen ez dela. ELAk dituen afiliatu asko eta asko ez dira ELAn sartu oposizio-sindikalismoa egiteko. Hau izango ote da ELAren barruan ahalegin berriztatzaileak duen mugaren adierazpena? Esan dugun bezala, denborak erakutsiko digu zertan geratzen den guzti hau. Bitartean, gure zentzu praktikoari lotuz, jasotako eskaintzei positiboki erantzun diegu, udaberriko kanpainaldian bezala, ekimenean erretizentzirik gabe parte hartuz. Ekimen hauek, guk irrikatu ohi dugun sindikalismoa berpizten dute.

ELAren bilakaerak, sindikatu hau bereizi du guk beraiekin izandako esperientziaz ezarritako lekutik

Aliantzen beste dimentsioa

ELA eta LABen arteko lankidetzak estuak, urteen poderioz, beste dimentsio bat eman die aliantzei eta lan-harremanei Euskadin. Alde batetik, bien interesak frogatu duelako aliantza horrek aurre egin behar izan dituen froga zartadatsuak gainditzeko beharrezkoak diren tinkotasuna eta malgutasuna eman ditzazkeela.

Eta bestaldetik, 'hainbat duzu, hainbat balio duzu' horretaz askatzeko gai izan direlako, helburu berberetara bideratutako beste indar batzurekin gehitze-egitatea burutuz.

Ez zaigu atsegin egiten bloke edo fronteetaz hitzegitea, sektakeria areagotzen duelako, eta kritika hertsietan zein neurtuetan oinarrituriko hausnarketa ere lausotzen duelako. Baina gure egitaterako, bistan da, ELA, LAB, STEE-EILAS eta beste erakundeekin elkar ongi ulertze bat dagoela eta elkarlanerako aukera; egun CCOO eta UGTrekin gertatzen ez zaiguna. Eta ez hori bakarrik, bistan da ere, azken sindikatu hauekin, berauen politikak direla medio, batzuetan aurrez aurre egiten dugula. Ondorioz, elkarkidetza sindikala dela medio, bizitza sindikalaren garapenak jarri gaituen tokian gaude, eta hor, hain zuzen ere, egon nahi dugu.

Aurrekoa esan ondoren, esan, gehitzeak atek zabalik izatea dakarrela, ikuspuntuak eta berezko helburuak zokoan utzi gabe. Batzuetan, bategiteek eta banaketek ez dute bat egiten nagusitzen diren lerrotzeekin. Hau da Posta Legearen aurkako postagintzako mobilizazioan suertatu zena, edo Telefonican, edo beste hitzarmen batzuetan. CCOO eta UGTren aurkako kritika ezin da izan diskurtso, agiri edo prentsaurreko guztietan, behin eta berriro, errepikatzen den leloa. Ezta gutxiengo zein disidentziaren aurkako presioa legeztatzeko hain erabiliak izan diren beste gehiengo batzuren atzeko aldearen *gehiengo sindikalen* ikuspegia. Izatez, gure ustez, hobe litzateke sindikatu horiek ahalik eta gutxien aipatzea, berezko proposamenen adierazpen positiboak berez hitzegiten utziz. Bestela, behin baino gehiagotan, CCOO eta UGTren portaerari erantzun hutsa baino ez den irudia eman genezake. Hau dela eta, badirudi bistan dela, berezko helburuen aldeko egitatea burutzea interesatzen dela, eta berauekin koherenteak diren irizpideekin. Irizpideok ez dira ispluaren atzeko aldea, ezta aipaturiko sindikatuen praktikaren ondorioa; egoera orohar aztertzeke eskumen sindikalen gainetik altxatzen den berezko hausnarketa baten ondorioa baizik.

CCOO eta
UGTren
aurkako
kritika ezin da
izan diskurtso,
agiri edo
prentsaurreko
guztietan,
behin eta
berriro,
errepikatzen
den leloa

Gehiengo eta gutxiengo sindikala

Gure iritziz, *gehiengo sindikalak* ezin du *gutxiengo sindikala* ez isolatu ez beronen aurkako blokeorik burutu –terminu horiek, anitza eta korapilotsua den euskal gizarteaz eraginpeko abaniko sindikalean zentzu unibokoa duten neurrian–, ezta geroa CCOO eta UGTren jarraikako gutxitze ohargarriaren esku ere utzi, sindikatu hauek euskal sindikalismoaren esparru ordezkatzaitetik at izan arte. CCOO eta UGTren irautea, langileen identitate nabariaren egitura anitzari lotzen zaio, eta ez izaera sindikal edo sozio-ekonomikodun faktoreei soilik. Badu zerikusirik ere EAE eta Nafarroa banantzen duen bilbadura instituzionalarekin, Gobernu zentralaren gordailuzain bakarrak direla ez esateagatik. ELA eta LABen inguruan osaturiko *gehiengo sindikala* gai izango ote da langileen gehiengo ordezkatzeko, langileen bi herenak edo bostetik lauak ordezkatzeko? Gai izango ote da sektore bat bestearekiko nagusitzen den sektore baten ordezkartzat hartua izateko arriskuari itzurtzeko? Nola bideratuko du Nafarroan ematen den egoera berezi hori?

Eraikuntza nazionalerako proiektuan euskal biztanleriak dauzkan identitateen zein sentimenduen aniztasuna jasotzen asmatzeko eraren baitan emango dira galdera hauen erantzun positiboak. Euskal gizartearekin bezala, esparru sindikalean ere, identitate horiek errespetatuto duen diskurtsoa osatu beharko da, sektore bat poztu baina bestea iraunduko dituen kalifikatiboen erabilpena ekituz. Kalifikatibo hauek ez dute laguntzen erakunde bakoitzaren portaeren benetako izaera argitzen. Honek ez du eragozten praktika zentralistei egin beharreko kritika zehatza eta hertsia, puntu hau baino ez aipatzeagatik.

Lan-harremanetarako euskal esparrua

Taldekatze honetan bat egiten dugun kolektibook aspaldi adierazi genuen lan-harremanetarako euskal esparru baten alde tinko aritzeko prest geundela; eta oraingo hau, gure lanaren eta parte izango garen aliantzen helburu nagusietako bat izaten jarraituko duela aldarrikatzeko garaia da. Egia da, proposamen horren edukinak zein berau ulertzeko eren inguruko eztabaida mahai gainean dela. Gure ustez, lan-mundua zein sozio-ekonomikoa osatzen dituzten esparru desberdinetan erabaki subiranorako eskubide baten aldarrikapena da. Hemen datza, enplegu, heziketa edo Gizarte Segurantzza bezalako eskumenak euskal instituzioei transferitzeko exigentzia, edo Eusko Legebiltzarrari zein Foru Parlamentuari gai hauen inguruko lege-ahalmenak itauntzeko exigentzia. Baita ere hitzarmen kolektiborako berezko esparruak eta beste eratako akordioak garatzeko ahaleginekin bat egiteko arrazoia. Indarrean den estatutu-instituzionalizaziotik eratorritako autogobernurako ahalmena agortu egin da, esparru honetako transferentzien jarraipena blokeatzen dituzten mugak hautsi gabe.

Aurrekoak ez du eragozten, guk, noiz edo noiz, irizpide hauen proiektzio zehatza ulertzeko era desberdin bat ateratzea. Behin baino gehiagotan nabaritu dugu itxura –erabaki subiranoa izatea– edukinaz gaindi ulertua izan dela; edo esparru autonomia aldarrikatzean, metodo eta helburuen kontzeptzio desberdin bat argi eta argi zehaztua ez izana. Garbi eta argi esango dugu: liskarrak fondo ekonomikoen gestioa ukitu duenean, gure zuhertasuna handitu da ikustean ez zela kolokan jartzen arazoaren mamia, hots, erakunde sindikal batzuk –bai Estatu mailan label instituzionala, bai Euskadin daramatenak– fondotzar ekonomiko horiek gestionatzeko ahalmen hori izan behar duten ala ez, kontutan izanik gestio honek dakartzan era guztietako dependentziak. Zaila da era honetako kritika bat egitea CCOO eta UGTi, sindikatu hauek kritikatzten dituztenek, gure esparrura etortzean, antzeko gauzak egiten dituztenean. Beste hainbeste esan dezakegu hitzarmen kolektiboari buruz; Estatu mailako zentralizazio, Euskal Herri mailako zentralizazio batetaz besterik gabe ordezkatzeko dabil, interesatuengandik hurbilagoko mailetako partehartzearen kalterako. Gure ustez, lan-harremanetarako euskal esparruak konpromezu instituzionalei buruz, helburu eta eragingarritasuna oso eztabaidagarriak dituzten hainbeste erakundetan partehartze sindikalaren zereginari buruzko hausnarketa ere dakar.

Lan-harremanetarako euskal esparruaren edukinak zein berau ulertzeko eren inguruko eztabaida mahai gainean daude

Mugimendu sindikalaren aginpide morala



Euskal gizartean, zentralismo estatalak eta postulatu neoliberaiek duten nagusitasunaren aurka gehiengo soziala osatzeari bideraturiko euskal sindikalismoaren esfortzu itzelak arrakastarik izan dezan, gure ustez, sindikalismoaren aginpide moral sendoren osatzeari ekin behar zaio ezinbestez. Ahalegin hau, neurri handi batean, portaera sindikaletan isolatzen diren baloreen baitan dago, bere aldarrikapen zein benetako jarreraren arteko koherentzian, gehitzeko zein baterabiltzeko ahalmenean. Ez dago izan daitezkeen garaipen edo galtzeen baitan, edo negoziazioen zein akordioen balantzeetan eman daitezkeen emaitzen garbien baitan, nahiz eta ez dugun ukatzen faktore hauek duten garrantzia. Ezin dugu ahaztu hiritarrek klase politikoarekiko duten kontrako iritzia, politikoez duten ahaltasun moralagatik; eta iritzi hau, zuzendaritza sindikaletara ere heltzen dela. Honengatik, hain zuzen ere, hauteskunde sindikaladietan garrantzia du hautagaiek merezi duten judizio morala; zeina, askotan, ordezkatzan dituen hizkien gainera dagoen.

Sindikalismoaren autoritate moral hori aitortua izan dadin, sindikalismoak, gizarte honetako kalteatuen izenean aldarrikatzeko gaitasuna adierazi behar du ezinbestez. Enplegu fijo duten pertsonak eta langabezian edo kalokako-enplegua edo eskludituak direnen arteko elkartasun-korronte iraunkor bat osatzea izan daiteke exigentzi honek har dezakeen adierazpenetako bat. Beste bat, garrantzi handikoa berau, gizonetzko eta emakumezkoen arteko berdintasunaren defentsa etengabea lan-harremanetan. Elkartasun hau ez datza, gure ustez, langabezian diren pertsonekin beraienezako erakundeak eratzean, baizik eta sektore hauek laboratuko dituzten egitate praktikoak burutzean. Hasieran esan dugun bezala, 35 orduetako lanaldia eta oinarritzko diru-sarreraren aldeko kanpainaldiak bat egiten du pentsakera honekin, eta beste hainbeste esan dezakegu fiskal-esparruko beste exigentzi batzuri buruz, kontratuen lan-arautzeari,

lanari zein lan-merkatuari dagozkienez emakumezkoen berezko errebindikazioen onarpenenari. Sindikalismoak bide horri ekiten badio, sindikalismoa ez da langile fijoen lujotzat hartua izango, eta gizarte honek zokoratzen dituenak ordezkatzera joko du.

Sindikalismoaren aginpide moral sendoaren osatzeari ekin behar zaio ezinbestez

Jarduera sindikalean txertatu

Ikuspuntu hau jarduera sindikalean txertatu behar da afiliatu eta militanteen kontzientzietan eragina izan dezan, negoziazio kolektiboak duen iraupen zein gaurkotasun berarekin. Aparteko orduak kentzeko borrokan, aurrerapen-itxaropenerako paradarik utziko duen oinarri ideologikoa da, edo plantillaren alderdi batentzat onartzen diren lan-baldintza diskriminatzaileen aurka. Nola edo hala, produkziobidean kokapen desberdina duten pertsonekin sentimendu etikoa osatu behar da, egungo lan-egoera karakterizatzen duen atomizazioa gaindituko duen oinarritzko elkartasuna gauzagarri egin dadin. Era berean, pertsonak bizi dituzten egoera bereziak kontutan izanik, berauen eskura dauden elkartasun-erak aurkitu behar dira.

Badirudi, erreferenduma, sinaduren bilketa edo deialdi zabaletara loturiko lan-etenaldi bezalako bide kolektiboez adierazten den elkartasuna gauzagarriago dela. Hala ere, neurririk eragingarriena enplegu iraunkorraren etengabeko defentsa da, aldi baterako kontratuak fijoak egiteko borrokatuz edo ALEn erabileraren aurka arituz. Baina guzti honetan, portaera sindikalak eta enpresen txantaiak tartean sartzen dira.

Aginpide moralaren ahuldura

Enplegua izan nahi duten pertsonak ikusten dutenean enpresa batean lan egin ahal izateko, enpresa horren begikoa den sindikatuaren *gomendioa* behar dutela, sindikalismoaren aginpide moralak erabat ahultzen da. *Padrinoak* agintzen duen sindikalismo mota hau oso hedatuta dago enpresa askotan, eta elkartasun-aldarrikapen guztien kontra dago. Era berean, enpresak lan-baldintzak higatzeko zein *giza baliabideen* esplotazio-maila gehitzeko burutzen dituen presio xantailariak direla bide, jarrera kolaboratzaileek ez diote mesederik egiten sindikalismoaren aginpide moralari. Zuk ematen didazu, nik laguntzen zaitut.

Nahiz eta ahotsak altxatzen diren ugazabei esaten dietenak euren egitateak edukin moralaz hornitu behar dituztela, ekonomia eta enpresaren etika sortzeko lanari ekinaz; eta ugazaba batzuk, itxuraz bada ere, aholku horiek berenganatzen badituzte *kode etikoak* edo *jokabide-kodeak* bultzatuz euren enpresetan, balore moral eta ekonomiaren arteko banaketaren etika nagusitzen da. Banaketa honen arabera, egitatearen arazoiek ez dute ajolik; emaitzek, ordea, bai. Emaitzok, sorturiko jardueraz eta lorturiko etekinez neurtzen dira.

Enpresa-etika honen aurrean, simple baina eragingarria gizartearentzat, sindikalismoak bere aginpide moralak sustrai dezan, enpresa eta

*Padrinoak
agintzen duen
sindikalismo
mota hau oso
hedatuta dago
enpresa
askotan, eta
elkartasun-
aldarrikapen
guztien kontra
dago*

ekonomiarentzako balore-sistema batean pentsatzen ahaleginak egin beharko lituzke, bere egitateen zein helburuen etika-oinarria bihurtuz. Enpresa barrura zuzenduriko hausnarketa bat; bere funtzionamendurako harreman sozialei buruzko hausnarketa, eta bere jarduerak ingurugiroan zein osasun kolektiboan eragiten dituen ondorioei zuzendurikoa.

Eutsi beste baloreak

Honelako hausnarketa batek ez du emaitza positiborik emango gizartea zuzentzen duen elitearen bozeramaileek funtsezkotzat jotzen dituzten baloreen eraginpetik at egiteko gai ez bada; hots, konkurrentzialtasuna banakako zein taldeko portaeraren arau gisa; garapena ondasuna sortze gisa, edukinek garrantzirik ez dutelarik; produktibitatearen gehitzea; bizi-kalitatearen beste irizpideekiko irizpide ekonomikoen nagusikeria. Sindikalismoak balore-independentsi erradikala behar du bere eragin solidario-esparrua propioa osatzeko gizartean, eta ez du lortuko bere kideek *bere* enpresaren konkurrentzialtasuna beraien gain hartzen badute, edo beste herri zein herrialdeekiko *konkurrentzialtasun nazionalaren* korresponsableak egiten badira; ondokoaren pobretzearen politikari beraien oniritzia ematen badiote.

Guretzat behar-beharrezkoa den hausnarketa etiko honek, gure ustez, ikuspegi zabala eskatzen du, mundu zabaleko ikuspegi bat. Urrutian direnekiko bertan buruturiko laguntza praktikoan oinarriturikoa; adibidez, haur-zapalkuntzaz baliatzen diren multinazionalak presionatzeko erosteko ahalmena erabiliz, zeren eta multinazional batzuk zapalkuntza handiko lan-baldintzetan produktua ekoizten dituzten, gero herrialde garatuetakoa bezeroei garesti saltzeko. Eta zorte hobeko baten bila gure lurraldera datozenak jasoz eta lagunduz.

Lan-araubidea enpresetan



Entresa-eredu berri baten aurrean gaude. Eredu honek, multinazionalen sartzearekin batera, enpresen lau-araubide eta estrukturaren aldaketa sakona eragin du. Autogintzarekin zerikusirik duten enpresa handi batzuk izan ezik, industri-talde handiak ere, dituzten enpresak, ekoizpen-unitate txikiagoetan antolatzen ari dira, negozioez, ekoizpen-taldez edo lurraldetaz bananduta.

Bermoldaketa honek, konkurrentetasuna eta negozioen mugikortasunaren interesari erantzuten dio; langileen erresistentzi eta antolatzeko ahalmena ahulduz; lan-harremanak (mugikortasun funtzional eta geografikoa, lan-egutegien malgutasuna, lantokien irikitze-egunak trabarik gabe ezartzea, aparteko orduak gehitzea) produktibitatearen gehitzearen eta etekinak epe motzera lortzearen menpe ipiniz.

Produktibitatearen kultura

Arlo honetan, ugazaberiak lorturiko aurrerapenak garrantzi handikoak izan dira. Eta larriago dena, produktibitate eta malgutasunaren ugazaba-kulturak –berau enpresak eta lanpostuak mantentzeko baldintza bezala ulertuta–, sindikatu eta langileen jarduketara zein irizpideen parte handi bat kutsatzen ditu; errealitate hori eta sindikatuen diskurtso nagusien arteko distantzia handitzen delarik.

Aurre egin behar diogun lan-mundu horrek langabezi-tasa handia du –zeinak, berriro ere, era bereziaz emakumezkoen kolektiboarengan eragiten duen–; lan-mundu hori bisustuago, bananduago eta ahulago dago; enpresa-zuzendaritzek itaun iraunkorrak ez dituzte oso gustoko, eta administrazio publikoetaz oso babesturik daude; belaunaldi berriak, aldi baterakotasunaz eta zerikusirik ez duen antzinako langileria kultura erabat markaturik daude. Honek, gure zeregin sindikalean aldaketa sakonak eskatzen dizkigu.

Produktibitatearen zein malgutasunaren ugazaba-kulturak, sindikatu eta langileen irizpideetan eragina du

Hitzarmen kolektiboa enpresetan

Egun, enpresaz enpresa eginiko hitzarmen kolektiboei indarra galdu dute esparru horretan duela urte batzuk lor zitezkeen hitzarmenekin gonbaratzen badugu; hitzarmen hauek iraurdasiko herrialdeko hitzarmenekiko alternatiba baliagarriak ziren. Egun, ez da egoera hori ematen. Hala ere, eremu handietako hitzarmenetan tokirik ez duten hobekuntza batzuk lortzeko esparrua izaten darraite; hobekuntza hauen artean aipatu: aldi baterakoentzat kontratu fijoak lortzea, ALEn bidez eginiko kontratuen arautzea –eta berauen debekua ere–, hobekuntzak lan-osasunean eta beste lan-baldintzak...

Ez da ustegabekoa ugazaberiak lan-murrizketa eta beste eskaera errebindikatzaileri, bai legez, bai akordio nagusietaz, uko egitea; uko sindikal larriak ez badakarzkite behintzat. Enpresen egoera oso bestelakoa dela erantzuten dute behin eta berriro, eta neurri horien ezartze zabalak enpresa askoren itxiera eragingo luketeela. Honela, ugazaberiak konpromezu nagusitik ihes egiten du, jakin badakielako enpresaz enpresa, salbuespenak izan ezik, helburu horiek lortzeko ahalmena nabarmenki murrizten dela.

Herrialde-hitzarmenen koordinazioa

Iazko lehen egunetan, eta hausnarketa baten ondorioz, sindikatu garrantzitsuenak, EAEko metalgintzako hitzarmenen negoziazioak koordinatzen saiatu ziren (Nafarroan, UGTk eta CCOOk ez zuten nahi izan), lan-etenaldi batzuren deialdietaz lagundurik. Ekimen honek ia ez zuen arrakastarik izan, sindikatuen menpekotasunarengatik eta hauen arteko banaketarengatik. ELAk Gipuzkoako hitzarmena sinatu zuen, Bizkaian eta Araban deituriko lan-etenaldi eta negoziazioak kontutan hartu gabe. CCOO eta UGTk, eraginkortasun mugatuaz, Bizkaikoa sinatu zuten. Honela, metalgintzako ugazaberiak, lorpen batzuk ken ziezazkiokeen mugimendu errebindikatzaileri koordinatuari itzuri zion. Bistan da ekimen hauek emaitza frustagarriak dakartzatela mobilizazio sendoetan eta jarrera koherenteetan sustraitzen ez badira.

Testuinguru honetan, positibo deritzogu ELAk proposaturiko «portaera-araudiak harreman sindikalean» horren ezartzeari, jarduera sindikalarentzat lotura praktikorako tresnak izan daitezkeen neurrian.

Lanaldi-murrizketaren aldeko iharduera

Lanaldiaren murrizketa, azken urteotan, sektore urri eta batzutara soilik mugatu da. Lakuako Gobernuak berak aitortu du, iaz, EAEn, batz bestea, benetako lanaldian, 10 minutuetako igoera eman zela. Aitzitik, aparteko ordu gehiago

sartu dira. EAEn, 34 milioi aparteko ordu sartuko direla aurreikusten da, hots, 45 aparteko ordu langileko; Estatu espainoleko batz bestekoa baino altuago, zeina 30'5 orduetan kokatzen den. Kontutan hartzen badugu sartzen diren hiru edo lau orduetatik bat bakarra deklaritzen dela, sartutako orduen kopurua iskandalagarria da.

Bestaldetik, ordutegi-malgutasunaren orokortzea ematen ari da. Ugazabek lan-ahalmena ekoizpen-kargetara egokitzeaz ezezik, aparteko ordu kopuru altua ere ezkututzen dute, enplegu-sortzea eragotziz. Azken hilabeteotan, hain zuzen ere, EAEko Lan-harremanetarako Kontseiluan, ugazaberia eta sindikatuen arteko eztabaidagai garrantzitsuenetako bat aparteko orduak ordutegi-malgutasunaz ordezkatzearena izan da. Confebask aparteko orduak murrizteko prest dago sindikatuek honako puntuak onartzen badituzte:

- Ugazabek urte-egitegia egitea, non ordutegia hilabeteko aldizkakotasunaz zehaztuko den, eguneko 9 orduetako mugaraino arauz gabe bana daitezkeela.
- Urte-lanaldian ere langile bakoitzeko 100 orduetako burtsa izatea, produkzioaren behar aldatzaileei eta enpresetan ematen ohi diren gertaerei aurre egiteko. Burtsa hau 12 orduetako lanaldietan edo jai-egun bezalako egunetan erabili zitzazketen.
- Egin behar den ekoizpenean gai den pertsonal ororen 100 orduen burtsa agortu ondoren egingo litzateke langile berrien kontratazioa produkzio-puntetarako.

Ordutegi-malgutasunaren orokortzea ematen ari da. Ugazabek, lan-ahalmena, ekoizpen-kargetara egokitzeke parada dutelarik

Ordutegi-malgutasunaren kalteak

Ordutegi-malgutasunak enpresetan eragiten dituen kalteak handiak dira. Aparteko ordu askoren sartzea ezkututzen du, enplegu berrien sortzea blokeatu eta hauek kentzea errazten du, produktibitatearen gehitze handia aisatzen baitu. Ekoizpen-behar eta ugazaben interesetara mugatzen ditu langileak. Eta edozein grebatarako deialdiaren eragina ia erabat indergabetzen du.

Adibidez, aste batetarako grebaldi batek, batz beste, produkzioaren 40 orduetako galera ekar dezake. Baina ugazabak 100 orduetako burtsa baten jabe bada, bi aste buruan grebak eragindako kalteaz susper daiteke, aukera baitu lanaldia hiru edo lau orduz luzatzeko hurrengo bi astetan eta 8 orduetako lanaldia ezartzeko larunbat batean. Eta egia bada ere urte-lanaldia grebaldiaren orduetan murriztua geratuko litzatekeela, enpresak aparteko orduak izango litzateke ekoizpen-maila urtean zehar berreskuratzeko. Kontutan hartzen badugu, egun, egiten diren grebaldiek egun gutxirako iraupena izaten dutela, ordutegi-malgutasunak, ugazabei, grebaldien eraginak neutralizatzeko aukera eskaintzen die, grebaldien eragina desnaturalizatuz, grebaldia erantzun-testigantza hutsean uzten delarik.

Iruñeko Wolkswagen edo Gasteizko Mercedes bezalako garrantzi handiko enpresetan azken hilabeteotan emandako eztabaida eta desakordioek deskalabrua eragin dute, bietan, ordutegi-malgutasuna onartu baita; lehenengo kasuan

Salaketa eta aparteko orduen zein ordutegi-malgutasunaren aurkako borroka, gure jarduera sindikalean etengabe present izan behar diren elementuak dira

UGT eta CCOOn apoioaz eta bigarreanean, bi sindikatu horiez gain, ELAren apoioaz. Bizkaiko ABBn, non bere lantoki desberdinek 80 eta 200 ordu malguen burtsak dituzten, duela hilabete batzuk grebaldirako deia egin zen lantoki baten itxiera zela medio. Eraginkorra izan zedin, grebaldirako deiak –egun batzutarako lan-etenaldiaz gain– ordu malgulak ez sartzea aldarrikatu zuen. Etorkizunean, burutu nahi diren mobilizazioetarako, faktore hau kontutan izan beharko da, mobilizazioen eraginkortasuna gutxitu ez dadin hasiera hasieratik.

Erakunde honetan konbergitzen dugun ESK-CUIS eta Ezker Sindikalean biltzen diren ezker sektoreentzako, salaketa eta aparteko orduen zein ordutegi-malgutasunaren aurkako borroka, gure jarduera sindikalean etengabe present izan behar diren elementuak dira. Ezin dugu onartu enpresek burutzen duten txantaia, honela bakarrik aurrera egin dezaketela esaten dutenean; ezta Wolkswagen edo Mercedes-en bezala, non lanpostu berriak sortzeko baldintza faltsu hori ezarri zaien.

Aldi baterako langileak, bigarren mailako langileak

Sortzez berriak diren enpresez gain, plantillak bortizki murrizteko krisialdiaz baliatzen diren enpresa askok eta askok, egun, lanpostu fijoak bete behar dituztenean, aldi baterako kontratuen ugaritasunaz baliatzen dira ekoizpenaren alderdi handi bat betetzeko eta enplegu fijoak ez sortzeko.

CCOO, UGT, ugazaberia eta Gobernuak itaundutako mugarik gabeko kontratazioerako erreformak ia ez du eraginik izan Euskal Herrian. Egin diren kontratazio berrien %90ak aldi baterakoak izan dira; eta Wolkswagen, Mercedes edo mugarik gabeko kontratazioak egin diren beste enpresetan, sindikatuekin itaundutako soldata-eskala bikoitz batekin egin dira.

Langile fijo eta aldi baterakoen arteko tartea, lan-baldintzetaz ezezik, aldi baterakoekiko axolagabetasun sindikalaz ere xedatuta dago. Gazte belaunaldi berrientzat, sindikatuak ez dira borroka eta antolatze-erreferentzirik. Tarte hori gaintzeak, lehenik eta behin, ALEn bidez eginiko kontratazioekiko langile batzorde eta sindikatuen oposizioa dakar; eta aldi berean, fijo eta aldi baterakoentzat, soldata-eskubideen zein lan-baldintzen berdintasuna hitzarmenetan lortzearen atzetik aritzea.

Bigarrenik, sindikatuak eta langile batzordeak jakin badakite, inork baino hobeto gainera, egindako aldi baterako kontratazio asko, lanpostu iraunkorrak betetzeko egiten direla; krotazio horien ilegaltasuna, praktikan, onartuz. Iharduera horiek salatzea eta fijoak egiteko erabaki tinkoa, ezinbesteko baldintzak dira aldi baterakoek sindikatuenganako konfidantzarik izan dezaten. Bistan da, hau ugazaben baldintzak onartu gabe egin behar dela, hots, ezin da onartu soldata-eskala bikoitza fijoak egiteko, edo denbora luzeago lanean daramaten langileak dituzten beste eskubide batzuri uko egitea.

Ezker sindikala



Hamarkada batzuetako zeregin sindikalaz, *ezker sindikalaren* izenez ezagutzen den pertsona eta erakunde multzo zabal horrek, garaien eraldaketarako bide berrien bilaketan ispiritu konformagaitz eta aktiboari erantzunaz darrai. Ezker sindikalaz mintzo garenean, bereiztasun hori, ez dugu ezein sindikatu edo kolektiboren etiketa baztertzailerik bezala erabili nahi, nahiz eta urtetan baliagarri izan den erakunde batzuk karakterizatzeko. Konbergentzi honetan bat egiten dugunok, etiketa horren barruan aurkitzen gara. Ezker sindikala ez da klub itxia, bertan sartzeko baimena eskatu behar den klub horietako bat, inork ez baitu esparru horretan izateko eskubidearen patentea. Egitez, gizartea eraldatzeko nahia daukan korrante sindikaltzat bere burua duten sindikatu, kolektibo eta pertsona orok osatzen dute ezker sindikala. Edo gutxienez, egun nagusitzen den erregimen ekonomiko eta sozialak eragiten dituen injustizia anitz eta diskriminazioen aurka dihardutenek. Ezker sindikala, lan-egoeran ematen ari den Gobernu eta ugazabekin kontzertazio zein kontsentso-sindikalistotik kritikoki urruntzen da.

Beraz, ezker sindikala anitza da, eta kointzidentzi zabal baten esparruaren barruan, berdinak ez diren ikuspuntu, iritzi eta errealitateari hurbiltzeko era desberdinak ematen dira, bakoitzari berezko nortasunaz hornituz. Gure iritzi, esparru honetan, urteetan zehar, adierazpen eratzailedun bi sentsibilitate finkatu dira. Alde batetik, ezker abertzalearen sindikalismoa edo abertzalea besterik gabe, autodefinitu ohi den bezala, LABen bildurikoa; eta bestalderetik, frankismo eta enpresa-zapalkuntzaren aurkako borrokatik sorturiko langilerian kokatzen dena, ESK-CUIS, Ezker Sindikala, STEE-EILAS... bezalako kolektiboetan isladatzen dena. Hastapen desberdin honek garrantzi handia izan du bi adierazpenen iraupenean. LABen sorreran eta bilakaeran, zein bere historian, abertzaletasun zorrotzaren identitatea konstante bat izan da; aldiz, beste korrontean biltzen ziren pertsonen kontzientziek kon-tzeptzio nazionalarekiko ñabardurak zituzten, zein egitate sindikalak izan behar zituen lehentasunetaz. Ondorioz, identitate sozial eta soziopolitiko sendodun taldekatze batzuk araberatu egin dira. Batez ere LABen aldetik, inguru politiko batekiko atxekimenduagatik, non ETAREN ekintzek zein planteamenduek eragin handia duten; beste korrontean, aldiz, ekintza eta planteamendu hauek erantzun gatazkatsuak eragiten dituzte. Honengatik, inertzi historikoak, aurritzi eta mesfidantzak gainditzeko asmoz, ezker sindikal horren batasunaren gaiak ez dio erantzuten parte diren alderdi bakoitzak biziki bizi dituen iritzi eta sentimenduen errealitateari.

Ezker sindikalak, garaien eraldaketarako bide berrien bilaketan ispiritu konformagaitz eta aktiboari eutsiz darrai

Bizipen desberdinak

Ez dugu arrazoirik ikusten bizipen desberdin hauek negatiboki baloratzeko. Hori ez da euskal historia sindikalaren atzerabegirako azterketatik atera daitekeen ondorioa. Ezker sindikalaren korronte desberdinek, urte luzetan euskal eszenategi sindikalean eman diren erronkei, dinamismo eta berezko ezaugarriak ekarri dizkiete, bere arrakasta eta hanka sartze guztiekin. Batzuek beste-enganetik ikasi dute. Korronte bakoitzak bere esperientziak burutu ditu, eta denboraz ezker sindikal osoak bereganatu ditu esperientzi horiek. Bilakaera paraleloa izan dute biziki eraldatzen ari den mundu batean. Uste dugu balantze honek ezagutzen dugun historiari zuzenkiago erantzuten diola, eta ez zorrotasun ideologiko eta sektakerian abiapuntu duten desakordioetaz zein elkar gaizki ulertzetaz osaturiko errenkadari. Nahiz eta faktore hauei leporagarriak diren gertaerak eman.

Hala ere, jakin badakigu, ezker sindikalaren esparru berean ari direla aldarrikatzen duten erakunde desberdinen arteko lehiak elkar gaizki ulertzea are-agotu dezakela, positibokiago bideratu behar diren indarrak alferrik errez –bai lan autonomoan bai lankidetzan–.

Antzinean aldaketa uneak eman dira, oraina den bezala, eta etorkizunak –zalantzarik gabe– bilakaera berriak ezagutuko ditu euskal sindikalismoan. Ezker sindikalaren gaurkotasunak berrikuntza interesgarriak ezagutzen ditu. LABk, ezker sindikala biltzeko proposamena plazaratu zuen; eta, berau, une hartako harremanentzako berrikuntza izan zen. ELAren bilakaerak, etorkizuneko bilakaerak, biharko ezker sindikalaren osatzean eragin dezake; orain arte betetzen ez zuen eragina betetzen hasi delako. Era xumeago batean, gure konbergentziak ere eraldatzen ditu esparru sindikal honen barne harremanak. Ezker sindikalaren osatzeak, erabat irekirik dagoen etorkizun bati egin behar dio aurre, eta ez litzateke batere zentzuduna izango osatze horrek hartuko duen bidea aurrez esatea.

**Ezker
sindikalean
aitortzen diren
ekimen zein
korronte
desberdinen
bategiterantz
ekitea ona da**

Bategiterantz

Korronte desberdinen bategiterantz ekitea ona da, goian soslaitu ditugun korronte eta eremu horretan aitortzen diren ekimen zein beste osagai batzuren. Etorkizunak esango ditu bategite horrek hartuko dituen egiturak; egun, badirudi, esperientzi bateratu eta hausnarketa komunitaz osaturiko esparru baten osatzeari lehentasuna eman behar diogula, lan-errealitatearen zein sozialen jarraipen partaidetuaren eremuan, berezkoak ditugun arloetako kultura komun bat osatzera bideratuta. Honetarako, elkar aintzat hartzea ezinbestekoa izango da, mesfidantzarik gabe, elkarrenganako konfidantza eraikitzailea; kolektibo zein nahi dituzten pertsona oro bilduko duena.

STEE-EILAS

Beti bada zer ikasirik. STEE-EILASek bere 6. Biltzarra burutu berri du, hogei-garren urteurreneko biltzarra. Bere bereiztasuna –eredu sindikalen eremu arruntean anomali gustagarria– berriro ere jasota geratu da; argi geratu da bere sorrera definitu zituzten ezaugarriak tinko eusten dituela, hots, sen sozio-politiko, nortasun asanbleario, jarrera errebindikatzailer, jatoritasun berriztatzaile, barne aniztasunaren gestio ona, portaera unitarioak. Ezaugarriok, funtsean mantendu ditu bere ibilbide helduaren zehar; ezker sindikalaren ondareari eginiko kalitate handiko ekarpenak direla. Eta bide batez ukatu, nahita edo definizioen deformazio eskolastikotik, hezkuntza-esparrura mugaturiko sindikatua denez, korporatibismo esturantzarako etorkizuna baino ez auguratzen zietenak. Gehitzera laguntzen duen erakunde berri honetatik, STEE-EILAS osatzen duten pertsoneri, interes komunekin esparruetan eta elkarrenganako elkartasunaren adierazpenean, ahal den laguntzarik handiena eskaini nahi diegu.

Lankideak

Ez dugu ezker sindikalaren inguruko atal hau utzi nahi, bere lan-esparrutik at oso ezaguna ez den kolektibo bat aipatu gabe. LANKIDEAKek, formalki, «egitate sozialarako kolektibo» zat du bere burua; nahiz eta bere izaera erakunde sindikal batekiko homologaria izan, sindikatuak kooperatibetan legez debekatuta daude. Arrasateko kooperatibismoaren bigarren belaunaldiko jenderik aktiboena biltzen du, zeina mugimendu honen gehiengo soziologikoa osatzen duen (mugimendua 50. hamarkadaren erdialdean sortu zen eta bigarren belaunaldi hau 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran sartu zen lanera). Unitario eta anitza da. Bere iharduera sindikala, kooperatibetako ordezkariak sozialeko Batzorde Sozialen bidez ia soilik burutzen du. Kooperatibek, langile eta kapital-elkarrekin direnez, ordezkari-estruktura bikoitza dute: soziala eta enpresariala.


LANKIDEAKek azken urteotan harturiko lan-jokabideak, kooperatibisten eskubideen inguruan, kooperatibetako zuzendaritza inposatzen saiatu den neurriari aurre egin eta Arrasateko kooperatiben goi-agintaritzak kooperatibismoaren oinarriko irizpideen aurka burutzen dituen erasoak galera zera eraman du.

LANKIDEAKek bat egin du beste sindikatu eta mugimendu sozialek kooperatibetatik at gelditzen diren gai soziopolitikoaren inguruan bultzaturiko kanpainaldiekin. Gure ustez, bat egiteko ahaleginak kolektibo hau kontutan izan behar du, zeinaren ekarpena bere iharduera-eremu berezitik nabaria den une garrantzitsuetan.

**LANKIDEAKek
bat egin du beste
sindikatu eta
mugimendu
sozialek
kooperatibetatik
at gelditzen diren
gai
soziopolitikoaren
inguruan
bultzaturiko
kanpainaldiekin**

2.

Ekonomia eta pertsonek



Hazkunde ekonomikoa eta gizartea



Egun, munduko ekonomiak hazkunde ekonomikoaren koiuntura bizi du, Japon eta Asiako hego-ekialdeko herrialdeek izan ezik. Hazkunde ekonomiko sendoa dela diote, inflazio-maila zein defizit publiko bajuaz ematen delako, hala nola interes-tipo bajuak. Honek esan nahi du hazkundek luzez iraun dezakela. Izatez, EEBB eta Britania Handiko ekonomiak –zeinen ziklo ekonomikoak, gainontzeko mendebaldeko herrialdeena baino aurreratuagoak dauden–, hazkunde sendoa deiturikoaren zazpigarrean urtean daude.

Hazkunde ekonomikoaren kalitatea kalibratu ahal izateko, gizarteari so egin behar zaio eta ez makroekonomiari. Lehenik esan, enplegu gutxi edo enplegu kaskarra edo biak bateradun hazkundera dela. Bigarrenik, lurralde-desberdintasuna zein soziala eragiten duen hazkundera dela. Etekinak oso hazten dira; soldadak, ordea, mantendu; lanaren errentak, errenta nazionalaren banaketan duen eragina galduz doa. Herrialdeetan bertan, zonalde batzuk gora egiten dute; besteak, aldiz, atzera eta hazkunderetik at geratzen ari dira. Hirugarrenik, pobrezia, elementu kroniko bihurtu da; onartzen da ez dela hazkunderaz eta politika sozialen bidez ezabatu beharreko fenomeno, errealitate endemikoa dela, zeinarekin bizi behar den, eta pobreentzako hainbat sorospenen bidez, pobrezia desaktibatu eta eramangarria egin.

Zauri sozial irekiak

Planetaren edozein eskualde behatu eta, ñabardura batzuetaz zein besteetaz, hazkunde ekonomiko eta trauma sozial iraunkor zein bizien arteko antzeko eskizofrenia egoera adieraziko digu. Azken urtean, orain dela gutxi arte hazkunde ekonomiko (eta sozial) orekatuaren eredutzat hartzen ziren Asiako hego-ekialdeko herrialdeen gehiengo ekonomiak, bata bestearen atzetik porrot egiten ikusi dugu. Mendebaldeko herrialdeetako emulazio laisterketak porrot egin du. Zauri sozial orok batera ematen ari dira (langabezi-tasa handia, soldaten ñarriadura, lan-eskubideen galera...), zeinen ondorioak Nazioarteko Moneta Fondoaren, FMIn, errezeta bortitxetaz larriagotzen diren.

Egun, Amerika latindarra, politika ekonomikoaren bideragarritasunaren eredutzat erabiltzen da. Barne Produktu Gordinaren (PIB) hazkunde handiak eta kan-

Hazkunde ekonomikoaren kalitatea kalibratu ahal izateko, gizarteari so egin behar zaio eta ez makroekonomiari

poko diru-inbertsio masiboek bermatuko lukete aurreko baieztapena. Hala ere, zonalde hartako herrialde gehienetan, eredu ekonomiko neoliberalak, hazkunde intentsibo eta hautatzailea, desberdintasun sozialak eta territorialak areagotu ditu, kapital transnasionalekiko izugarritzko menpekotasuna ematen ari delarik. Etorkizunean hazkunderak pot eginaz gero, herrialde hauek ez dute ondare publikorik izango, beraz merke saltzen ari baitira.

Mendebaldeko herrialdeen artean, enpleguaren izurriteari irabazteaz harrotzen direnak, EEBB eta Britaina Handia hain zuen, atsegina ez den egoera soziala eskaintzen dute: enplegu zabor ugari, lan egin baina pobrea den jende-burtsa hazkorrak, lan-eskubideen galtzearen zein lanaldiaren malgutasunaren orokortzea. Bi hitzetan esanda, XXI. mendearen atarian gauden honetan, XIX. mendeko lan-harremanetarako atzerakada.

Ortodoxia ekonomikoa

Ortodoxia ekonomiko neoliberalarentzat, azken hogeitako funtzionamendu ekonomikoa gizartetan eragiten ari den ñabardura guztiak, kezka eskaseko aldeko eraginak dira; ortodoxiak ez baitu uste ekonomietan beste funtzionamendurik eman daitekeenik. Merkatua ekonomiaren gune nagusia da. Ekonomia, gizartearen erdi-erdian dago. Gizartea, ahalik eta arau gutxienekin planeta osora hedatzen den jungla hertsia da. Eta botere nagusi gisa, enpresa transnasionalen bidezko kapitalena, nazioarteko erakunde ekonomikoak (Nazioarteko Moneta Fondoa, Mundu Bankua, Nazioarteko Merkataritza Elkartea...) eta Estatuak. Baina funtzionamendu ekonomiko horrek porrotaren bidea erakutsiko balu edo matxinadak eragingo balitu, orduan aldaketaren bat posible izango litzateke. Badirudi epe motzera ez dela emango ez bata ez bestea, nahiz eta politika neoliberalen kontraesan ekonomiko eta sozialak metatuz joan.

Neoliberalismoa



Bigarren Gerra Mundialaren ostean, kapitalismoa ukituta zegoen. Egoera horretan eman zen itun keynesiarra deitu zena. Itunak, kapitalismoak bizi izan duen garairik egonkor eta oparoenari zabaldu zizkion ateak: 40ko urtetik 70ko urterainoko *zorioneko 30 urteak*.

Itun keynesiarra, Ongizatearen estatua Mendebaldean eraikitzeko akordio sozial inplizitua izan zen. Bere diseinuak soldata erreal, etekin-tipo, soldatza, guztizko etekinen hazkundea bermatzen zituen segurtasun eta enplegu osoko egoera batean, askatasunak zalantzan jarri gabe, demokrazia zabaldu eta hedatuz. Esan ohi da Iparreko herrialde aberatsetako langile eta kapitalisten arteko itun hau posible izan zela langileek ordaindu ezezik, Hegoko herrialdeek ere ordaindu egin zutelako. Iparreko langileek klase-borroka hiru hamarkadaz *blokeatuz* ordaindu zuten, eta Hogokoek ahal zen guztia hurrupatu zitzaielako. Ingurugiroak ere ordaindu zuen, ezagutzen den erasorik bortitxena jasan baitzuen, mugarik gabeko hedakariaz zein teknologi zakar eta arpilatzaileaz.

Itun keynesiarraren mugak

60. hamarkadaren amaieran, itun keynesiarraren mugak era argi batean azalarazten hasi ziren: eskaera, produkzioa eta enplegu osoa zabaltzen jarraitzeko kontraesanak; kontraesanak gastu publikoarekin; enpresari buruzko jendearen balorazio negatiboa. 1973ko pitrolioaren lehen krisiaren gailentasuna, 25 urte geroago azterturik, mendebaldeko ekonomietan izan zuen eragina ezezik, kapitalaren portaeran ere inflexio-puntua ekarri zuen. Oso eztabaidatu da krisialdi hura eskaintza ala eskaera-krisialdia izan zen. Pentsa daiteke eskaintzarena izan zela zentzu gogorrean. Kapitalak ez zuen egoera hartan produzitzen jarraitzerik. Erabateko eraldaketa aldarrikatzen zuen. Langileak disziplintzeko garaia zen. Itun keynesiarra, beldurraz (kontsumismoari) eta komenigarritasunaz (ekonomikoa) onartu izan zena, ez zitzaien interesatzen.

Desenplegua erabili zen mozkin-tipoa lehengora bihurtzeko. Benetako soldatak, produktibitatearen azpitik hazteko eta honela soldataren aurkako errentabanaketa lortu. Soldatak murrizteko asmo berberaz, soldatei gaitz asko leporatu

Itun keynesiarra, beldurraz eta komenigarritasunaz onartu izan zena, ez zitzaien interesatzen egoera berrirako

zaizkie; desoreka ekonomikoen zuzenketa hauen gain eman delarik. Arazo guztien muturreko arrazoi zein arazo guztien azken konponbide bihurtu dira. Inflazioaren aurkako borrokak, konkurrentzialtasunaren hobekuntzak, kanpo zein defizit publikoaren murrizketak..., den-denak soldaten blokeatzea exigitzen zuen.

Soldataren aurkako helburu osagarri batekin, sorospen sozialen gastuak eta interes nagusiko zerbitzu publikoen (heziketa, osasungintza...) mantenua direla medio, politika neoliberalak sektore publikoa etengabe erasotu du. Sorospen eta zerbitzu sozialak kotizazio sozialetaz ordaintzen badira, berauen murrizketak, eragin guztietarako, lan-kostuen murrizketa dakar. Esan, kotizazio sozialak soldataren parte direla, berdin delarik formalki ugazabek ala langileek

beraiek ordaintzen dituzten ala ez. Gastu horiek zergen bidez egiten diren neurrian, berauen murrizketa kapitalistek duten zerga-karga arintzeko balio du.

Ongizate Estatuaren atzerakadak beste zeregin batzuk ere betetzen ditu: langileak ahultzen ditu, etorkizunarekiko intseguritatea eta beldurra langileengan nagusi dadin utziz, langileen hurrupaketarako baldintza hobetoak sortuz (soldata meheagoak, lanaldi luzeagoak, erritmo biziagoak, erantzuteko ahalmen eskasagoa, sindikazio-kota txikiagoak...); zerbitzu publikoen ñarriadurak eta murrizketak sorospenetan, negozioei eta kapital pribatuaren errentagarritasunari bide berriak zabaltzen dizkie, hiritarrak sorospen eta pentsio osagarrien bila aritu behar direla.

Neoliberalismoaren doktrina ekonomikoa

Neoliberalismoa, doktrina ekonomikoa bezala, toki guztietan nagusitu da. Bere zeregina, itun keynesiarraren garaia atzean utzi nahi zuen kapitalismo bati ongi zetorkion politika ekonomikoa justifikatzea izan da. Ikuspuntu ekonomikotik ezin daiteke esan bere gestioa arrakastatsua izan denik. Ez da gai izan 30. urte-etako bezalako garai iraunkorrik lortzeko. Sozialki, aitzitik, bere helburuetako asko lortu ditu, gizarte oso desberdinak sortuz, baina ez nahi zuen bezain desestatalizatuak. Politiko eta ideologikoki, hegemoni handia lortu du, bere printzipioentzako alternatibarik ez dagoela ideia bakuna barreiatuz; denok, aldekoak eta kontrakoak, bere arauetara egokitu behar gara.

Zeintzuk dira neoliberalismoak ezarri dituen indar-ideia horiek eta mundu osoa alde batetik bestera zeharkatzen dituztenak, batere susmagarria ez den legezko erabilpeneko txanpona bezala?

- **Globalizazioa.**
Kapitalen, merkatuen eta enpresen funtzionamendu mundualizatura egokitu behar da.
- **Berrikuntza teknologikoa.**
Gastuak murrizteko, etengabe berritu behar da.

- **Liberalizazioa.**
Merkatu ororen zabaltzeari ekin behar zaio; mundua, merkatu bakarra izatea lortu arte.
- **Desaruketa.**
Aginte osoa merkatuari eman behar zaio.
- **Pribatizazioa.**
Jabego publiko eta zerbitzu publikoen era guztiak desagertarazi behar dira. Gizartearen gobernua enpresa pribatuaren esku izan behar da.
- **Konkurrentetasuna.**
Nazioarte mailako lehiaketan onik ateratzeko, indartsuena izateko borrokatu behar da.

Neoliberalismoa,
doktrina
ekonomiko bezala,
toki guztietan
nagusitu da,
itun keynesiarraren
politika
ekonomikoak
justifikatuz

Globalizazioa



Hitzen bat purian bada, berau globalizazioarena edo mundualizazioarena da. Diskurtso sozio-ekonomiko guztien gune nagusia betetzen du. Eta ez bakarrik errealitatea azaltzeko, iharduera eta estrategia ekonomiko zein politikoak justifikatzeko erabiltzen da. Hau dela eta, argitu behar dugu kontzeptu honen atzean ezkutatzen dena.

Globalizazioaren irudirik oinarritzkoena herrixka globalarekin lotzen da, mundu bakarrarekin. Gizarteen bizitza ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalen elkar-menpekotasunarekin. Irudi horrek, bi enuntziatu gehiago dakartza berarekin: aurrerapen edukin bat (ona da norabide hori hartzea) eta logika ukaezin bat (globalizazioa, ekidezina da).

Maila bat jaitsiz, neoliberalismoaren kontzeptua diskurtso neoliberalari estuki loturik agertzen da. Globalizazioa, kapitalismoaren sektore ahaltsuenen estrategia da, kapital-diruaren itzulgingururako baldintza ahalik eta hoberenak ezarri ahal izateko, zein mundu mailan, merkatu librea ezartzeko. Estrategia hau, teknologi berriek sortzen dituzten aukera gorakorretan finkatzen da, eta Nazioarteko Moneta Fondoa, Mundu Bankua, eta Nazioarteko Markataritza Elkartearen bezalako Estatuaren gaineko erakunde ekonomikoak zein nazioen gaineko enpresak sujetu aktibo bezala erabiltzen ditu.

Merkatuaren nagusikeria

Merkatuaren mugarik gabeko nagusikerian oinarrituriko neoliberalismoaren doktrina ofizialak globalizazioa denontzat ona dela, nahiz eta epe motzera kostuak izan, ziurtatzen badu ere; globalizazioa arautzen dituzten arau politikoei buruzko eztabaida ez dago itxita, gori-gorian dagoen gaia da eta. Markataritza librearen eraginari buruzko gaur goizekoa ez den leloa eztabaidatzen ari gara. Ortodoxia liberalak behin eta berriro dio oso positiboa den dinamika baten aurrean aurkitzen garela; guk, ordea, uste dugu egiaztatu behar dugula irabazle eta galtzaileak daudela. Galtzaileak ez dira talde sozial edo herrialde jakin batzuk soilik, planeta osoko eskualde osoak baizik, Afrika subsahariarra kasu. Baieztapen honekin batera, zeinaren barruan galtzaile bezala ingurugiroa azpimarratu behar den (nola ulertu bada 4.000 km-tara eginiko yogurt bat konkurrentea

izatea, ez bada globalizazioak ez dituela garraio-kostuak kontutan hartzen) argitu behar dugu ez dugula inolako ziurtasunik baiesteko epe luzerako emaitzak partehartzaile guztientzat onuragarriak izango direnik.

Badirudi globalizazioaren kontzeptuak, Estatuak zaharkitutako errealitateak balira uztera behartzen duela. Politika hau, politika neoliberaletan inplizitu aurkitzen da. Politika hauek, kapitalari interesatzen ez zaizkion esparruetaz hustu nahi dute Estatuak; Ongizate estatua hustu nahi dute Onegintza estatua bihurtu arte, lan-erregulazio eta erregulazio ekonomiko batzuk... ezarriz. Hala ere, tesis hau errealitatearekin kontrajarri dago. Alde batetik, nazioarteko sistemak, Estatu-sistema izaten darrai (nazioarteko erakunde ekonomiko guztiak Estatuaren instituzioak dira, eta hauek dira euren politikak erabakitzen dituztenak); eta bestaldetik, indar ekonomikoek Estatuak behar dituzte, legeak euren interesen arabera egin ditzaten.

Azkenik, komenigarri da berriro esatea globalizazioa nahikoa ez den paradigma dela egungo elkarren arteko lotura azaltzeko. Neoliberalismoaren paradigma, paradigma interesatua da. Honek, interdependentzi ekonomikoen prozesuetako berriena hartuz, berauek estrapolatzen ditu Estatu, komunikabide, uniformizazio kulturalaren zereginari buruzko egokiak ez diren ondorioak ateraz. Prozesu globaletaz, Estatu-nazioez, kultura eta zibilizazioak eta eskualde-integrazioaldez osaturiko eremu multidimentsional batean pentsatzea, burutzen ari diren dinamiketarik hurbilago dago. Era berean, dimentsio horiek zeharkako errealitate desberdinetaz konektatuta; sujetu sozialez, teknologiez eta ideologiez osaturik. Prozesu heterogeneo eta multidirekzionalen elkarguneak, une bakoitzean estrukturatzen du globalizazioaz kalifika dezakeguna. Bistan denez, ez gaude fenomeno amaitu baten aurrean, ezta egonkorra, eta jakina, ezta ere atzera egin ez dezakeen fenomeno baten aurrean.

Nazioarteko sistemak, Estatu-sistema izaten darrai eta indar ekonomikoek Estatuak behar dituzte, legeak euren interesen arabera egin ditzaten

Batasun europarra



Batasun europarra, egun munduan entsaiatzen ari diren bloke ekonomiko-politikoaren adibiderik aurreratuenak da. 50ko urteetan sortu zen. Herri nahi unitarioetaz eta Munduko Bigarren Gerran parte hartu zuten herrialde europarren borondateaz baliatu zen mende laurdenean bi gerletara eraman zuen nor-gehiagokaren kontrako elkarkidetzaren bideari ekiteko. Baina batez ere, integrazio ekonomiko europarraren esperimenduaren jaiotzak, bere inbertsio, produkzio, salmenta etabarren maila zabalduko zizkion eremu ekonomiko bat izateko kapital handi europarraren erabakiari zor dio; eta honela baldintza hobegotan leihatu potentzi kapitalista hegemonikoarekin, hots, EEBBkin, eta azalaratzen ari zen potentziarekin, Japonekin alegia.

Eraikuntza zuzendu dituzten ildoak

Lau hamarka luze hauen zehar hainbat ildoren inguruan eraiki da Batasun europarra. Alde batetik, pragmatismoa. Honek ez du esan nahi aurretiko diseinurik gabe aritu denik, baizik eta eraikuntza zehatza (epeak, urratsak eta aukeratutako erak) oso pragmatikoa izan dela. Adibidez, 1970.eko Werner txostenak, aduana batasuna gauzatu ondoren 60. hamarkadaren amaieran, hurrengo urratsa izan behar zena diseinatu zuen, merkatu bakarra hain zuzen. Dena dela, merkatu bakarra Akta Bakarraren eskutik eraikitzen hasi zen 1986an, sei urte geroago amaitu zelarik.

Bigarren ildoak: metatuz egiten den eraikuntza; garai zehatz batzuetan, ziklo ekonomikoaren gorantzako etapekin bat egin dutelarik. Atzerakadako faseetan, aldiz, eraikuntza europarra gelditu egin da, baina ez du inoiz atzera egin.

Prozesu osoaren zehar kapitalismo europarraren sektorerik ahultsuenek burutu duten erabateko kontrolak osatzen du hirugarren ildoak. Sektore hauek, aduana batasuna, merkatu bakarra, moneta bakarra diseinatu dituzte, zein une bakoitzean euren interesei komeni zitzaizkien integrazio-eredua. Egia da Batasun europarra kapitalaren zerbitzura dagoen eremu ekonomiko bat baino gehiago dela, baina instituzio politiko-legegile eta judizialek bigarren mailako zeregina betetzen dute erabaki ekonomikoaren parean.

Batasun europarra, egun munduan entsaiatzen ari diren bloke ekonomiko-politikoaren adibiderik aurreratuenak da

Batasun europarraren egungo eraikuntza-faseari, moneta bakarreko buruzkoari alegia, ezkerretik egin zaizkion kritikak aztertzerakoan, uste dugu euroren ezartzearen era eta Banku Zentral Europarraren zereginari buruzko arrazoiketak ekonomiaren garaipena suposatzen duen politika ez dela oso egokia. Kontrakoa da, hain zuzen ere, gehiago azpimarratu beharko genukena: ekonomia bide zehatz batetik bideratzeko borondate politikoa, eta ez bide naturaleenatik (moneta estatalak bukatzeko kasuarekin bezala, moneta bakarra inposatzeko). Borondate hori desenpleguarekin bukatzeko erabiliko balitz, ziur, arrakasta bermatuta zegoela.

Jarrera zuhurra

Jarrera zuhurra izaten dugu geroari buruzko iragarpenak egiterakoan. Batez ere, ikuspegi historikotik gertaera berriei buruzkoak direnean, Estatu desberdinen artean ezarritako moneta bakar baten kasuan bezala. Hori dela eta, euroren porrota auguratzen duten aurrikuste katastrofikoetatik oso urruti sentitzen gara. Aurrikuste katastrofiko hauek era guztietako angeluetatik eginikoak dira; ekonomilari teorikoen eskuetatik datozenak garrantzitsuak dira, eta ez soilik ortodoxo neoliberalenengandikoak. Sakonean, aurrikuste katastrofisten arrazonomendu komuna ekonomizismo dogmatikoan datza. Estatuaren arteko batasun ekonomiko baten eraikuntzaldi hain luze batek zerbait frogatu baldin badu, Batasun europarraren kasuan bezala, ahaltzuen borondateak egin dezakeena euren interesei egokitutako proiektu batean iraunaraztekoarena izan da.

Orain arte iruzkindutakoaren arabera, bistan da ez dugula perspektiba atsegingarririk kapital handiko Batasun europarrari aurre egiteko. Jarreraren nahas-mahas batetik defendaturiko *Batasun Europarrari ez* horren alternatibek ez gaituzte konbentzitzen (eskuin zein ezkerreko partidu batzuk, sindikatu edo erakunde ekologista batzuk... egiten dituztenak). Estatuaren ereduak gizartearen sektore ahulenen interesei politika mesedegarriagoak burutzea ziurtatzen ez duelako. Aitortzen dugu eskala txikiagoko eredu ekonomikoek, terminu sozial eta ingurugiroetan demokratikoagoak eta adeitsuagoak diseinatzeko parada handiago dituztela.

Beste Batasun europar edo Batasun europar politiko eta sozial baten alde daudenen alternatiba, gure ikuspuntutik onargarriagoa bada ere, eredu ofizialaren neurrietan eginik daudela uste dugu. Ziurenik, egun meta daitekeen kalokako erantzun-maila kontutan izanik, komenigarriago da honako bi lan-ildoak aurrera eramaten saiatzea:

- Eraikitzen ari den Batasun europarraren edukinak salatzea, desberdintasunean, konkurrentzialtasunean, ingurugiroarekiko utzikierian, Hegoko herriekiko zein migrarietako intso-lidaritean oinarrituriko gizarteak eragiten dituztelako.
- Batasun europarrean inplikaturiko Estatu batzuetako herri sektore zehatzetatik bultzatzen ari diren erresistentzi-borroka apoiatzea. Borroka hauek, azken urteotan, esparru europarrera zabaltzen ari dira (langabetuen martxak kasu).

Jarrera zuhurra izaten dugu geroari buruzko iragarpenak egiterakoan. Porrota auguratzen duten aurrikuste katastrofikoetatik oso urruti sentitzen gara

Konponbideak eta alternatibak



Puntu honetara heldu garela, egokia izan daiteke egungo egoera korapilotsuari alternatibak bezala esparru desberdinetan ematen ari diren ideia batzuri gain-begirada ematea. Jakina, sistemak autorregulatzeko ahalmen nahikoa duela, denborari denbora eman behar zaiola, eta merkatuaren funtzionamendu libre eta naturala posible egingo dituzten neurriak ezarri behar direla aldarrikatzen dutenak alde batera utziko ditugu. Hau aldarrikatzen dutenek, azken bi urteotan politika ekonomiko neoliberalak agintzen ari den botika berberaren dosis gehiago proposatzen dute.

Sistema bere kabuz utzita, egonkortasun ekonomiko eta sozial bidea sortuz, autoarautzeko gai ez dela, baina sistema ona dela (edo posibleen artean ez hain gaitza) pentsatzen dutenen kezkek, alde batetik, hondamen sozialak leuntzera bideratuta daude, eta bestaldetik, euste-mekanismoak ezartzera. Lehen kasuan, ezin mantendu eta komenigarri ez diren Ongizate estatuak Onewingintza estatuak bihurtzera bideraturiko neurriak egongo lirateke. Eta hauen helburua, eskludituen sorosmena baino ez litzateke izango.

Tobin-tasak nazioarteko finantza-transakzioak zergapetzea proposatzen du, eta hortik lorturiko diruak Hegoko herrialdeen onuran erabili

Indar ezegonkortzailenak eragotzi

Bigarrenean, neurri batean, indar ezegonkortzailenak eragozte da. Adibidez, transakzio ekonomiko globalizatuen funtzionamendu zoroa eragozte. Duela urte batzuk, James Tobin-ek (Nobel Saria ekonomian) proposatu zuen nazioarteko finantza-transakzioak %0'5ean zergapetzea, eta hortik lorturiko diruak Hegoko herrialdeen onuran erabili. Esparru berean kokatzen dira ingurugiroa babesteko proposamen fiskalak, baita ere Nazioarteko Moneta Fondoa, Mundu Bankoa eta Nazioarteko Merkataritza Elkartea bezalako nazioarteko erakunde ekonomikoak demokratikoagoak eta eragileagoak zuzenduriko erreformak.

Bada Ongizate estatuaren berreraiketzearen alde azaltzen den ekonomilari, soziologo eta politologoz osaturiko korronea, nahiz eta 50ko urteak geroztik Europan ezagutu ditugun bezalako beste elementu batzuk eransten dizkioten. Honela, adibidez, dimentsio europarra, izaera solidario eta lankidea herrialde pobreekiko, ingurugiroaren bermatzailea.

Ongizate estatu berriaren gakoak, enplegu osoan izaten jarraituko luke; lana, pertsonen gehiengoaren eskubideen azken legitimatzaile ezezik, enplegua, baliabideen mugimenduen finantza-aspektua doitzeko giltzarri ere delako. Alternatiba honen arabera, mendebaldeko gizarte aberatsek ezin dituzte Ongizate estatuaren mantenu-kostuak ordaindu (herrialde bateko biztanleko errenta gora eginten duen bitartean, ez dago arrazoirik hiritar oroena batera ez igotzeko); eta kapital pribatuari etekin-tipoa bermatu nahi dio, konkurrente izango ez den, baina enpresa pribatuaren osagarria izango den gastu publikotik datozen inbertsiorako pakete osoa eskainiz.

Soldata-gizartearen gainbeherakada

Kontsentsu soziala berriztatzeko itun berriaren bilaketan kezkatu, beste pentsalari batzuk diote ituna ez dela posible soldata-gizartearen paradigma zaharrean aurkitzerik. Uste dute soldata-gizartea gainditzearen atarian dagoela soldatapeko lanaren gainbeherakadaz eta berau teknologiaz ordezkatu delako. Beste batzuk, ordea, soldata-loturan indar gehiago jartzen dute; soldatapeko lanak, egunez egun, biztanleriaren parte txikiago bati eta denbora laburragoaz betetzen dienez, soldatapeko lanak ez du lotura soziala izateko ahalmena, zeinaren inguruan ezartzen ziren Ongizate estatua substantziatzen zituzten eskubideak.

Nola sostengatuko litzateke lotura sozial berri hau? Nahiz eta teoriko bakoitzaren lehentasunak alde batetik bestetik baino enfokatuagoak dauden, proposamenak honako hiru esparrutan mugitzen dira: lehena, lan-murrizketa eta lan-banaketa izango litzateke; bigarrena, diru-sarrera sozial unibertsal bat duintasunaz bizi ahal izateko eta eskubide hiritartzat aitorturikoa; eta hirugarrena, boluntariotza eta produktuak zein zerbitzu baliagarriak eskaintzeko gai den sektore ekonomiko bezala duen artikulazio-ahalmena.

Hiru dimentsio autonomo

Gure ustez hiru dimentsio hauek, euren bideei eta autonomiari heldu behar diete, ez baitakigu nolakoak izango diren gizarte berri bateko harreman sozialak; baita ere egungo gizartea desberdintasunaz, langabezia eta pobreziaz josita dagoelako; eta biharko egunerako baino lehen, gaurkorako izango diren alternatibak eman behar ditugulako. Ikuspuntu honetatik, diru-sarrera sozial unibertsalean ia indar guztia jartzea bezain okerra izango litzateke lanaldiaren murrizketan zein banaketan jartzea. Ezin da indar guztia diru-sarrera sozial unibertsalean jarri, soldatapeko lana gainditzeke den errealitatea baita, integrazio sozialarako zereginik betetzen du eta; ezta lanaldiaren murrizketan zein bana-

Indar guztia diru-sarrera sozial unibertsalean jartzea bezain kaltegarria izango litzateke lanaldiaren murrizketan zein banaketan jartzea

ketan, diru-sarrera sozial unibertsala egungo langabetuen sorospena bezain ez zorrotzean alburatuta geratuko litzatekeelako.

Lanaldiaren murrizketa mugimendu sindikalaren aldarrikapen historiko bat da. Berau lortzearen, langileriak borroka handiak burutu ditu. Eta lanaldiaren murrizketaren borrokari esker, lanaldia nabarmenki murriztu ezezik, lan-baldintzak ere hobetu egin dira.

Egun, lanaldiaren murrizketaren aldeko presioa, langabeziari aurre egiteko lehentasunari biziki loturik aurkitzen da, beste tresna batzuekin batera tresta interesgarria delarik; beste tresna hauen artean aipatu: aparteko orduak eta enpleguaniztasuna kentzea, jubilazio-adina aurreratzea, txanda-kontratuak, elkarbananduriko lanpostua... Dena den, ekonomiaren informatizazioaz ematen ari diren produktibitate-gehitzeak, produktibideen automatizazio biziak eta lan-eskuaren teknologi berri murriztatzaileen sartzeak, pentsarazten digute geroko gizarteak soldatapeko lana banatu beharko duela –lanaldia erabat murriztuz– une horretan diren langileen artean, ez badu enplegua duten eta ez dutenen arteko hausdura endemikorik sortu nahi.

Dinamika honek, etxe-lanaren existentzia era zaugarriagoaz azalaraziko du. Ia emakumezkoek bakarrik burutzen duten lana, ordaintzen ez den lan hori. Barne Produktu Gordinaren kontabilizaziorako existitzen ez den lana. Baina ezinbestekoa den ondasun soziala sortzeko zein giza harremanetarako. Emakumezkoak etxetik kanpo burutzen duen lanari gehitzen dena, eta merkaturako lanarekin batera kontutan hartu behar dena lanaldiaren banaketan.

Hiritartasuna eta Diru-sarrera sozial unibertsala

Hiritartasun idea, diru-sarrera sozial unibertsalaren figurarekin loturik dago. Gizartekide orori loturiko eskubide eta eginkizun multzoa adierazten du. Ondasun sozialgintzan kolektiboki eta eskubide berberaz partehartzeko eskubidea suposatzen du, hala nola gizartearekiko loturagatik ondasun sozialaren parte bateaz gozatzeko. Guk, diru-sarrera sozial unibertsala bizitza duinaz gozatzeko eskubide bezala ulertzen dugu eta honetarako honako ezaugarriak izan behar ditu:

- Ez da karitatearekin lotu behar; ura, airea, lurra, jakiak bezalako oinarritzko baliabide sozialen banaketarekin loturiko justizia banatzailearekin baizik.
- Unibertsala izan behar du, heziketa edo osasungintza bezala.
- Ez du baldintzarik izan behar, jasotzaileak ordainean ez du ezer eman behar.
- Bizimodu duina eramateko ahinakoa izan behar du.

Beraz, ez da enplegu ezarekin lotzen den exigentzia, ezta denboraldi jakinerako, edo harreman familiar batzutura baldintzaturiko sorospen sozial bat edo gizar-teari exigitzen zaion ekarpen bat. Diru-sarrera sozial unibertsala indarrean jartzeko zailtasun materialek ezin dituzte kolokan jarri errebindikazio hau sostengantzen dituzten irizpideak. Izatekotan ere, zailtasun horiek iragankortasunaz ulertu behar dira, eta irizpide malgul batzuren erabilera utzi bere indarjartzetarako. Hau dela eta, EHAeko Lege Biltzarrean (1997an) eta Nafarroako Parlamentuan (1998an) aurkezturiko Herri Lege Ekimen gisako Gizarte Eskubideen Eskutitzen formulazioak honen adibideak dira. Diru-sarrera sozial unibertsalaren aldeko korrante soziala sortu ahal izateko, tresna honek, gure ustez, izan behar dituen edukin idealen egokiera onartu behar izan dugu.

Diru-sarrera sozial unibertsala gauzatzeko gai izango den desideragarritasun sozialak, egun, indarrean den bestelako justizia kontzeptua exigitzen du. Pertsonen arteko elkarlehiarekin zerikusirik izango ez duena, ez dena hain individualista, ezta hain produktibista izango; laztasuna, giza harremanak eta ingurugiroarekiko begirunea bezalako baloreak faboratuko dituena.

Diru-sarrera sozial unibertsala lortzeak, askatasun handiago ekarriko du bizi-modua aukeratzetarakoan, eta egun, lan-merkatutik at geratzen diren lan zein behar sozialen berbaloraketa, zein eredu sozial justuago eta solidariago batera hurbilduko gaituen ondasun banaketa.

Atal honekin bukatu aurretik, ekonomia solidario zein alternatiboen (ekonomia etikoa) esperientziak eta boluntaritza-esperientzi batzuk amankomunean dutena aipatu nahi dugu. Alde batetik, egungo sistema ekonomikoa errefusatzaren dute, krudela eta antiekologikoa delako; bestaldetik, era berriko enpresa-praktikak burutu nahi dituzte. Praktika hauentzat, alde batetik, pertsona eta ingurugiarekiko begirunea, burutzen dituzten ihardueren gaindiezineko mugak dira; eta bestaldetik, enpresa kapitalistek erabiltzen dituzten irizpideekiko oso bestelakoak izango dituzten erakundeak eratu nahi dituzte. Enpresa hauek, ekonomia etikoari tarte handiago emango dion etorkizun ez hain desatsegin baterako entsaiua izateaz gain, kalokotasun eta eskludizo sozialaren aurka aritzeko kolektibo batzuren baliabidea ere badira.

Hego herrialdeekiko solidarioak



Hego herrialdeak Ipar herrialdeen bizi zein garapen-maila altuagoa izatearen euskarri izan dira

Hego herrialdeek Ipar herrialdeekiko etengabeko menpekotasun-harremanak izan dituzte. Hego herrialdeak Ipar herrialdeen bizi zein garapen-maila altuagoa izatearen euskarri izan dira. Zeregin banaketa horrek, berezko bideari ekitea eragotzi die. Honek ez du esan nahi suertatu zaien guztia Iparrakin duten harreman horien arabera soilik uler daitekeenik. Hegoko herrialde bakoitzak bere historia du, egoera eta bertako agente sozialez eragindakoa.

Azken 25 urteotan munduan emandako aldaketek, Hegoko herrialdeak euren biztanleriengana eta Iparreko langileengana (ikus Globalizazioaren atala) hurbiltzea eragin dute. Zeregin hori multinazionalitatez baldintzaturik dagoenez, hurbiltasuna ez da elkartasunerako baldintza hobeagoetan adierazten, alderantziz baizik. Izatez, eta OCDEren datuen arabera, nazioarteko lankidetzaz murriztu egin da bere mailarik bajuenera 1997an, herrialde garatuen aurrekontu-defizitak jaisteko ahaleginak direla medio.

Ongi bideraturiko elkartasuna

Ongi bideraturiko elkartasuna planteiatzeko, honako hausnarketak plazaratzeari komenigarri deritzogu:

- Aitortu behar dugu Iparran gozatzen dugun ongizatea, neurri handi batean, Hegoaren gaizkizateari esker dela. Honek esan nahi du gure gain hartu behar dugula Hegoarekin zor historikoa dugula.
- Azken urteotan osatzen ari den munduan, ageriago agertzen da dominazio berberak jasaten ditugula. Enpresa transnasionalek dira, Ipar eta Hegoko jende zein ingurugiroa esplotatzen dituztenak, Hegoan bortitxago bada ere.
- Hegoko pertsonak ez dira Iparreko pertsonen lehiakideak. Ez dute ez soldatetan ez enpleguan lehiatzen, ezta Iparreko lan-baldintzak okerragotzen euren soldata-kostu txikiagoekin. Globalizazioaren atalean esan dugun bezala, datu empirikoak ez datoz bat tesis honekin. Iparreko lehiakiderik


nagusienak Iparreko herrialdeak dira, transakzio gehienak beraien artean burutzen baitira. Honez gain, soldata-kostuak ez dira elementu bakarra, ezta normalean erabaki enpresarial konkurrentzialak eragiten dituen behin-betiko aldagaia.

- Hegoko langileen oinarrizko eskubideak, itxuraz, defendatzera bideraturiko klausula sozialak ez dira Iparraren ekarpen solidario onik. Enpresen arteko norgehiagokarako tresna bat baino ez dira, Hegoko herrialdeetan kostuak gehitzeko eta honela hauen ahalmen lehiakidea okerragotu.
- Egunez egun Iparreko enpresa gehiagok inbertsio zuzenak egiten dituzte Hegoko herrialdeetan. Hegoan kokatzen diren enpresa hauetako langilekideekiko elkartasunerako era eraginkor bat, Hegoko langileen eskubideak errespetatuko dituzten plataforma jakin batzuk betetzeko exigentzia da.
- Parte garen mugimendu sindikal honek helburu berdinkide eta solidario sendoa izan ohi du. Beraz, ezin dugu onartu, pertsona migrariak diskriminatuko duen legerik, bigarren mailako hiritarrak bihurtuz, beste langileak baino eskubide gutxiagorekin. Lege horien indargabetzea eta pertsona ororen hiritartasunerako erabateko sarbiderako eskubidea aldarrikatu behar ditugu. Arrazakeriak gure gizartean hartzen dituen era desberdinei aurre egin behar diegu, bai era instituzionalari, bai jatorri desberdineko pertsonen gune berean elkarrekin bizitzeko aukera ukatzen digunari.
- Lankidetzaren esparruan buruturiko elkartasun-proiektu zuzeneko esperientzietaz badakigu zerbait. Esperientzi hau zabaltzea baliagarri suerta daiteke laguntzaren Hegoko jasotzaileentzat eta zuzenean inplikaturiko sindikatuko jendearentzat ezezik, sindikatu osoarentzat ere, esperientzia zuzentasunaz sozializatzen dakigun neurrian.


Hegoko jendea ez da Iparreko jendearen lehiakide. Ongi zuzenduriko elkartasunak ideia hori errefusatu behar du. Datuak ez datoz bat ideia horrekin

3.

Baloreak
batzen dituen
konbergentzia



Ibilbide luzea



Erakunde honetan bat egiten dugun kolektibook, behinolako jatorri komuna dugu. Kolektibook, frankismoaren aurka eta enpresetan langileen egoera hobetzearen alde borroka soziala suspertu zuten langile batzordeetan dute jatorria. Beraz, enbor beretik erretu gara, bizi behar izan zuen munduan bere aztarna uzteko prest belanaldiarekin batera, emantzipazio-izaeran sendoki sustraituriko belaunaldiarekin batera. Enbor hartatik adar desberdinak erretu ondoren banandu ziren, eta bakoitzak bere bideari ekin zion. CCOO, sindikatu bezala eratu aurretik CONE eta CECOn arteko batasunaren tirabirak bizi izan zituen. Korrante Unitarioa bezala jarraitu zutenak, SU, CSUT eta ESK eragin zituzten kaleratze eta irteerek, eta gaur arte korrante bezala barruan aritu den Ezker Sindikalarekin batera, bizi-traiektoria batzuren mugarriak dira; zeinak ibilbide luze baten eta hamaika gora-beheren ondoren, paradoxikoki, erakunde batean bat egiten dute berriro. Une honetan bi kolektibo konkretuk bat egiten badugu ere, azpimarratu behar dugu hemendik aurrera, berriro ere, jatorri komun hartatik abiatu zen abaniko sindikal hartatik gatozen pertsonok batera izango garela.

Honela, urtetan bakoitzak bere esparruan zintzoki aritu eta borrokatu duen jendeak bat egin du erakunde batean. Herri honetako historia sindikalari erreferentzi ozen batzuk eskaini dizkioten pertsonak. Zailtasunetara eta egitate militantearen zehar izan dituzten oztopoak gairatuzera ohituriko jendea. Jende honen egitekoa ezker sindikalaren ondarearen irizpideetan oinarritu egin da, hots, enpresa-zuzendari-tzekin lankidetzari ezetza; irazte, neurri diskriminatzaile, esplotazioaren gehitze eta gainontzeko neurri bermoldatzaileekiko oposizio garbia; kontzertazio-sindikalismoari eta langileen interesen aurkako akordioei kritika; egitate sindikalaren sendotzea kaltetuen mobilizazioen bidez; helburu komunak lortu ahal izateko ahalik eta indar gehienak batzeko jarrera unitarioa...

Borroka eta jarrera zintzoaren bidetik aritu den jendeok bat egin dugu erakunde berean

Bi tradizioren batasuna

Bi tradizio desberdin ere batzen dira. Bata, sindikatu handi batean lan egitera ohituta, barne oposizioaren bozeramaile, CCOOko buruzagitzak gehienetan oztopatzen zuen iharduera zuzentzailea burutuz. Bestea, ordea, erakunde txi-

kian aritu dena, estruktura sinpleagoekin, iharduera-gune zehatzekin. Ezaugarri hauek, gai batzuren inguruan ematen den iritzi-aniztasunarekin batera, aniztasun osagarri berri bat ematen diote erakunde honi. Aldi berean, esfortzu unitarioak baloratzen ohituriko tradizioak dira; eta antzinean, mugimendu sindikalaren mobilizazio bateratueterako aukera zegoenean, beroni eman zaio lehentasuna –greba orokorretarako deialdiak kasu–.

Konbergentzia errazten duen beste bereiztasuna: burutzen duten egitatearen zentzuari, errealitate sozial eta bere tendentziei, edo, agiri honek frogatzen duen moduan, esparru sozio-ekonomikoan eragina duten pentsamendu-korrontei buruzko hausnarketak egitera ohituriko kolektiboak eta pertsonak direla. Bizitza sozialean planteiatu eta eztabaidatzen diren beste gaietaz ere kezkatzen diren militante sindikaletaz mintzo gara: presoen aldeko egitateak hasiz, emakumezkoen mobilizazioak apoiatu arte; gureak egiten ditugun kausa eta errebindikazio esparru zabala.

Beraz, logikoa da baieztatzea erakunde konbergenteak burutuko duen egitatea zabala izango dela eta aspektu ugari ukituko dituela, esparru instituzionaletan eta partehartze-erakundetan ematen diren gaiak kontutan hartuz, lan-eragina zein soziala izango duten legeak aztertuz eta behar izanez gero aurre eginaz, negoziazio kolektiboari ekarpenak eginaz, lan-osasuna bultzatuz eta prebentzioan aktiboki arituz, inertzi diskriminatzaile eta aukera-desberdintasunaren aurka emakumezkoen egitatearekin bat eginaz... Bi hitzetan, zeregin sindikalaren exigentzietan arituz.

Idazki honetan ukitzen diren arloetako proiektio sozio-politikoak eragin handia izango du kolektibo honen etorkizuneko ibilbidean, aresti hurbilean izan duen bezala. Partehartze sindikalaren ohiko kontzeptua zabaltzen dituzten ekimenetan partehartzea ohiko praktika amankomunala da, batez ere talde desfaboratuenean aldeko elkartasunean, EAEn eta Nafarroan Gizarte Eskubideen Eskutitz baten aldeko Herri Lege Ekimenetan buruturiko lanek garbi eta argi uzten duten moduan. Izango da zereginik geroan.

Estruktura ordezkatzaille eta eragile



Elkargintza partehartzaile era guztietan bezala, afiliatuek, aldarrikatzen ditugun ideien hedatze eta esku-hartzea posible egiten duen gorputza osatzen dute. Hauen partehartzea, sindikatuaren kide aktibo gisa, afiliazioa zabalduz, ekimen desberdinak burutuz edo hauteskunde sindikaletako hautagai-zerrendetan ahalik eta pertsona gehienak bilduz, ezinbesteko eta ordezkazina da.

Afiliatuek informatuta egoteko eskubidea dute, sindikatuaren norabideen eztabaidan parte hartzeko, batzorde erabakitzaileetako kideak aukeratzeko, argitalpenak jasotzeko, aholkularitza juridikorako eta gizarte epaitegietan defentsa izateko; afiliatu izateak bere kontrapartidak ere ditu: behar bat du, kuota sindikala ordaintzea; eta konpromezu bat, libreki sartu garen kolektiboarekiko leialtasuna. Lantegian edo sindikatu barruan aritzeko esfortzua, denbora eta ilusioen parte bat emateko prest diren pertsonak, emakumezko eta gizonezkoak ateratzen dira afiliazio horretatik; eta burutu beharreko lana erraztu eta koordinatzeko, estruktura batetaz hornitzen dira.

Abagunez eta irabazpidez, eraketa era zehazterakoan, gure estilotik eta egitate sindikaletik ondorioztatzen diren benetako beharrei egiten diegu so. Gure sindikatuaren tamainuak, egiteko dugun erak, eta ezagutzen ditugun sindikatu batzuren aparatu handidun estrukturekiko dugun prebentzioak, eraketa-praktika batzuk berritzera garamatzate.

Ezker Sindikala eta ESK-CUISen arteko konbergentzi honetara, mutur desberdinetan aurkitzen diren bi eraketa-esperientzi dakarzkigu. Ez digu balio CCOOn izandako esperientziak, ezta ere azken hamabost urteotan ESK-CUISen pilutakoa, bere gabezitarrengatik. Gabeziak heziketa mailan, lan-esparru (emakume, prentsa) edo sektore (garbiketa, osasungintza) desberdinetako koordinazioan, edo sindikalak ez diren euskal gizartearen esparru desberdinetan partehartzeko erabaki garbia dutenen harremanak sendotzeko harturiko ekimenetan, edo egitate solidario zuzenean eta salaketan.

Guzti honek ez du zerikusirik erakundea era burokratikoaz ulertzeko era batekin, iharduera konkretuak burutzeko pertsonen borondatea adierazi ez denean estrukturalak sortuz. Aitzitik, borondateak suspertu, iharduerak burutzeko baliegarrienak izango diren estrukturetz hornitu pertsonak; hau da, hain zuzen ere, jarraitu nahi dugun ildoak. Kolektiboan ematen den sentsibilitatea eta beharraz jabeturik, zuzendaritza-organuek beraiek proposatuko dituzte eraketa-era desberdinak (koiunturalak edo iraunkorrak), pertsonetaz eta bitartekoetaz hornituz.

Gure estilotik eta egitate sindikaletik ondorioztatzen diren benetako beharrei egiten diegu so

Eskubide batzuk berretsi

Beraz, bai herrialde mailan, bai eskualde mailan aukerarik balego, bai maila nazionalean, eskubide batzuk berretsiko ditugu, zeinak gauzatzen direnean gure eraketa-puzzle xumea beteko dituzten eta adieraziko falta zaizkigun piezak.

Eraketa-estruktura, bakuntasunaz edo konplexutasunaz hornitu ezezik, berau malgutasunaz ere hornitu behar dugu; estrukturak, irekiak eginaz, nahi dutenek parte har dezaten, hauen izaera ordezkatzailerik zein eragilea zalantzan jarri gabe. Lan-esparru bat, sektore edo herrialdea ordezkatzeko duen pertsona ez da beti berbera izan behar, hots, ordezkari bat ez da afiliatu batena, lan-taldearena baizik. Muga pertsonalak, sindikalak, ordu-baliakizunak, jendea berritzeko gogoia, dira bestak beste malgutasun honi heltzeko arrazoiak. Demokrazia ordezkagarria sendotzeko borondatea eta organuak osatzeko garaiarako malgutasuna, pertsonen integrazioarekin ahalik eta era egonkorrean bateratu behar dira.

Hau dela eta, iharduera finkatzen duen lan-esparru espezifiku orok, eta jorratzen duen esparrurako, zuzendaritza-batzordean afiliatu bat izateko eskubidea izango dute; eta bere lan-egitasmoa burutzeko, berau eztabaidatu ondoren, eskubidea izango dute behar diren baliabide ekonomiak jasotzeko; eta bere ordezkari-tzaren bidez, eskubidea ere izango dute zuzendaritza-batzordeak hartu beharreko orientazio eta erabakietan partehartzeko.

Eraketa-puzlea osatzeko era honek ez du asetzen sindikatuaren jarraipena ziurtatuko duen kideen egonkortasuna. Pertsona talde hau, iraunkorra ezeztatuak edo ardura uztea erabakitzen ez duten bitartean, hautatua izan behar du. Eta behar den babesa izan dezan, zein partehartzailerik-eragilea, prozedura batzuk jarraitu beharko ditu: esparru nazionalerako, Konferentzian bertan; herrialdeetan, afiliatuen asanbladen bidez; eta beste esparrurik balego, beroni egokien iruditzen zaiona.

Irizpide hauen ondoren, eta argitasun pittin bat emateko helburu soilarekin, hona hemen estrukturaren maila desberdinen desarrollo bat:

EREMU NAZIONALA:

BATZORDE NAZIONALA.- Bertan honako hauek izango dira: Asanblada nazionalean hautaturiko kolektiboa; herrialdeetako ordezkari batzordea (herrialde bakoitzatik bi, gorako ordezkari batzordea); sektore eta lan-esparruetako ordezkari batzordea (lan-osasuna, prentsa eta argitarapenak, garbikuntza, osasungintza..., gorako ordezkari batzordea).

BATZARRE NAZIONALA.- Bertan honako hauek izango dira: herrialdeetako lau zuzendaritzak; Batzorde nazionala; sektoreetako kolektibo nazionalak (partaide guztiak).


HERRIALDEKO EREMUA:

HERRIALDEKO BATZORDEA.- Herrialdeetako asanbladetan hautaturiko pertsonak; lan-esparru, sektore, sekzio sindikal eta eskualdeetako ordezkari batzordea.

Borondateak
suspertu,
iharduerak
burutzeko
baliagarrienak
izango diren
estrukturaz
hornituz

4.

Arazo nazionala



Dimentsio orekatua



Arlo korapilotsu honetan, gure iritziz, dimentsio orekatua bilatu behar dugu, gure profilak argi gera daitezen, baina kontutan izanik gure barnean den jarrera aniztasuna eta gai honen inguruko eztabaidan ematen diren tirabirak, ez dugu egoera gogaikarri zein beharrezko ez diren banaketak eragin nahi.

Ibilbide autonomikoaren bi hamarkaden ondoren, baieztatu daiteke euskal nahi nazionalerik eragindako gatazkari ez zaiola irtenbiderik aurkitu. Hor darria, hainbeste urte ondoren eta egoera zailtan, ETArekin borrokaren armatua apoiatzen duen biztanleriaren sektore bat; apoio hau, egoeraren adierazgarri argia da. Baita ere askoz zabalago den sektore baten desadostasuna eta atsegabea, zeinen sentimendu abertzaleak frankismo ondorengo transizioak inposatu zigun traje estuan zein arbitrarioan hesituta dauden.

ETAk burutzen duen bortxa armatuaren erabilpen politikoaren gertakariak, gure artean jarrera zein sentimendu desberdinak eragiten ditu aspalditik. Orain arte ez gara ahalegindu iritzi bateratu bat lortzen, ezta proposatuko hemendik aurrera. Ez liguke etekin onik emango; bai, ordea, tentsioak eta zatiketa.

Hala ere, Estatuak eta Gobernuan den partiduak, PPk alegia, gogor heltzen dioten bide errepresiboari erantzunaz, ETAk burutzen dituen ekintzengatik biziki hunkiturik aurkitzen den sentiberatasun etikoan bat egiten dugu. Gure ustez, PPren zinegotzien aurkako atentatuek ez dute koherentziarik gordetzen ezkerren baloreekin eta aldarrikatzen den proiektu transformatzailearekin; eta adierazten duten intsensibilitate-mailak ez du justifikazio handiagorik beste aldearen krudeltasuna aldarrikatuz.

Gatazka dela eta, gure ustez, lehenago argi utzi dugun legez, gatazka jatorri politikoa du, eta beronen errudun nagusia Estatua da. Elkartasuna, sentimendu ugarien zein nahien bategitean datza, Estatuaren aurkako borrokan alde berean izatean, eta errepresio bortitza jasaten ari direnak apoiatzeko borondatean.

Euskal gatazka, soluziobide politiko negoziatuaren bidez izan behar du irtenbide. Hau dela eta, konbergentzi honetan parte hartzen dugun erakundeok, azken boladan, esparru desberdinetako beste erakunde sindikal, sozial eta politikoekin batera, negoziatzailearen bideak dituen hainbat oztopo egoztera bideraturiko ekimenak bultzatu ditugu. Hala ere, gure inplikazioak, bai gure lehentasunezko ardura sindikalarengatik bai barne sentimenduetatik

Gatazka dela eta, gure ustez, argi utzi dugun legez, gatazka jatorri politikoa du, eta beronen errudun nagusia Estatua da

Barne- adostasun handiz dihardugu presoekiko elkartasunean, eta berau hedatu nahi dugu ahal dugun tokietara

56

Arazo nazionala

desberdinen artean direnen arteko oreka mantendu behar dugulako, une konkretutik baino ez da hedatu behar. Kasu bakoitzaren inguruan ematen dena aztertu ondoren hartuko dugu erabakia.

Preso politikoak, mugimendu abertzalearen multzorik zaugarriena da. Giltzapean direlako eta euren familiarekiko duten harremanengatik. Estatuak jakin badaki, eta urteak daramatza etengabeko politika errepresibo erasotzailea burutzen presoen aurka, berauek ahuldu nahian, beraien arteko zatiketa eragin nahian eta honela ETA kalteatu. Estatu osoko kartzeletan barreiatzea, zigor-onuren ez ezartzea, preso sendaezinak kartzelatik ez ateratzea, jazarpena eta tratu txarrak, senidetartekoek jasaten duten akosoa... menu errepresiboaren osagaiak dira.

Orain arte, politika errepresibo honek arrakasta ez izateaz gain, Estatuaren ahulezia adierazten du. Gartzeletan presoak tinko direlako, eta kalean presoekiko elkartasuna hedatuz doalako, eta senitartekoen inguru hertsitik eta presoen esparru politikotik at plataformak eta ekimenak gauzatuz doalako.

Konbergentzi honetan bat egiten dugunok, barne adostasun handiz elkartasun-fronte honetan aktiboki dihardugunok, gure apoioa mantendu behar dugu eta areagotu ahal dugun tokietan, sektore berriak inplikatur.

Euskara.

Autodeterminazioa



Euskara euskaldunen hizkuntza da eta Euskal Herriaren esparrura baino ez da mugatzen. Euskal Herriaren bereiztasun linguistiko zein kulturalik handiena da, euskal hiritartasunaren funtsezko datu bat eta bere ekarpen bitxia gizateriaren ondare kulturalarentzat. Horregatik, ezin dugu onartu atzera egin dezan, ezta gaztelaniarekiko zein frantsesarekiko menpeko hizkuntzaren bere egungo egoera.

Bistan da azken hizkuntz hauek ez dutela bizgarri berezirik behar. Euskararen egoera hobetzen joateko, bere kalokatasunari zein malgutasunari aurre eginaz, hiru maila desberdin aipa ditzazkegu, zeinetan aurrerapen garrantzitsuak eman beharko diren: hedapen zabalagoa irakaskuntzan eta funtzio publikoan, erabiliago izatea dakitenean aldetik eta bizitza sozialean leku determinatzaileagoa izatea. Kolektibo bezala, gure ihardueran, euskararen erabilpenak egun betetzen ez duen lekua betetzea da gure erantzunkizuna.

Azken boladan lan-munduan, euskara suspertzeko bideraturiko ekimenak eta erakunde batzuk finkatu egin dira. Eusko Jaurlaritzaren Politika Linguistikarako Sailordetzak plan bat bultzatzen ari da azken urteotan, zeinaren helbururik handizaleena euskara lan-hizkuntza bihurtzea den ahalik eta enpresa gehienetan zein Administrazioan. Euskalan eta Emun, Arrasateko elkarte bat eta kooperatiba bat hurrenez hurren, espezialistak dira helburuen planifikazioan. Nafarroan, antzinatik dator sindikatu guztien arteko lankidetzak euskara ikasteko matrikularioaren alde lan-munduari zuzenduriko kanpainaldiak burutzea.

Erakunde konbergentearentzat, autodeterminazioak, bi abantail erantzutenezinak ditu. Bata, funtsezko ideia politikoa, demokratikoa eta sinplea: Euskal Herriak berak esan behar du ados dagoen ala ez egungo Estatu espainoleko izatearekin. Eta bigarrena, jendearen nahien gaitetik euskal lurraldearen jabe dela pentsatzen duen Estatuari erabateko exigentzia planteiatzen diona. Beraz, demokrazia espainiarrak gainditu gabeko ikasgaia du hemen.

Autodeterminazioaren arazoia zein arazo nazionalarena, euskal biztanleriarengan oso sustraituriko nahian eta sentimenduetan datza. Besteak beste, azpimagarria da autogobernurako asmo sendodun kolektibitate bezala eta Estatu bateaz kaltetuta sentitzen dena, zeinak ez duen legezatasun ez moralik ez politikorik. Euskal Herria Estatu espainolean izateagatik ase ez den eta bokazio independentistadun korrante sozial handi baten existentzia aipaturiko sentimendu horien adierazpenik erradikalena da.

Autodeterminazioaren erabilera zertarako batekin lotzen da, beti asmo zehatz baten atzetik doa, beti proposamenaren eta momentuaren paradari loturik


Euskal gizartea gonbentzitu behar da autodeterminazio- eskubidea izatea ondasun politikoa dela biztanleriarentzat

dago. Egunen batean autodeterminazioa gauzatzen bada, beronen esparrua eta botuak nola zenbatuko diren, erabaki gabe dauden gaiak dira.

Egun, egoera hipotetiko horietatik oso urruti gaudenez, behin eta berriro esan behar dugu euskal autodeterminazio-eskubideraren buruan bataila garrantzitsu batzuk eman beharko direla: euskal gizartea gonbentzitu behar da autodeterminazio-eskubidea izatea ondasun politikoa dela biztanleriarentzat. Bestea, komenigarri da: iritzi publiko espainiarra limurtu behar da Konstituzioaren 2. eta 8. atalak kentzea ondasun politikoa dela, autodeterminazio-eskubidea eragozten dutelako Estatuaren lurralde-osatasuna aldarrikatzean eta militarren eskutan uzten dutelako bere mugen ukiezintasuna.



Hainbat proposamen mugimendu sindikalarantzat



Agiri honen azken atalean, mugimendu sindikalari hainbat proposamen luzatzeko ausardia izan dugu, eta batez ere, azken garaian elkarlanean aritu garen sindikatu eta kolektiboak. Gure iritziz behinik behin, beharrezkoak eta erabilgarriak diren ekimenak, lerrokada sindikal honen eragin soziala hedatzeko. Egitez, ozenki eginiko hausnarketa bat da; iradokizunak, proposamenak baino; sindikatu eta kolektiboen arteko lankidetzeta eta laguntza indartzeko asmoz. Hona hemen bada proposamen horiek:

- Aparteko orduak erabat kentzeko edo berauek nabarmenki murrizteko epe erdirako lana burutu, eta honetarako talde bat osatu, arazoaren aspektu guztiak azter ditzan; iharduera sistematiko bat bultzatu, zeinaren ardatz nagusia aparteko orduak sartu behar diren ala ez bozkatzeko erreferendumak bultzatzea izango den.
- Makroinkesta bat burutu. Gazteei eta lanari buruzko makroinkesta; gizonetako eta emakumezkoen egoera bereziak kontutan hartuko dituen.
- Emakumezkoen estruktura edo talde espezifikoaren harreman erregulatu bat indarrean jarri. Plataforma bat landu negoziazio kolektiborako; lanean sartzeko desberdintasuna, edo enpresetan ematen diren erasoak, etabarren ikerketa eta politika unitarioen garapena, lankidetzarako gaiak izan daitezke.
- Euskara lan-munduan. Eusko Jaurlaritzarekin urte batzutatako iraupena izango duen hitzarmena sinatu, eta ahal bada Nafarroakoarekin ere. Arrasateko Emun edo Euskalan bezalako erakundeekin elkar lanerako akordioak egin. Plan bereziak bultzatu enpresa desberdinetan, Bidasoaldeko Ospitalean buruturiko esperientzia bezalako ereduak jarraituz.
- Zailtasunak dituzten herrialdeetako langileekiko elkartasun eta laguntza aktibodun ekimenak. Batez ere haur-lanaren aurkakoak, zein gainontzeko esplotazio-egoeren aurkakoak. Lan Nazioarteko Erakundeak (OIT) onartu berri duen akordioaren sustapena, non oinarritzko lan-eskubideak eta haur-lanaren desagertzea aldarrikatzen diren.
- Hitzarmen egokien bidez, merkataritza justu eta elkar trukaketa kalitateboaren esparruan laguntza aktiboa eta hedagarria aztertu.
- Gai sozio-ekonomikoetan jantzitakoak, ikerlari, kazetari eta sindikalistetaz osaturiko Foro sindikal sozio-ekonomikoa sortu. Foro sindikal honek, esparru horretan ugazabek dituzten institutu, foro edo fundazioek betetzen dituzten zereginak beteko luke. Foro horren zereginak honako hauek izan daitezke:
 - Bizitza ekonomikoari buruzko iritziak eman.
 - Hegokorear sindikatuen iradokizunei jarraiki, langileen aurka, baliabide natural edo ingurugiroaren aurka diharduten enpresa handien zerrenda bat egin. Label eta sari negatiboak eman.
 - Eztabaidak proposatu, ugazaben fundazio edo institutuen txostenak erantzun.
 - Kanpoko esperientziak aztertu, nazioarteko ikuspegia erabiliz.
- Gai fiskalak aztertuko duen talde bat sortu, zerga-proposamen berriak aztertzeko, zein Hiritarrak Laguntzeko Tobin Tasa baten aldeko Egitatea, edo zerga ekologikoak; azterketa konparatiboak eginaz.

